

**OVIDIOREN *HEROIDES*. LIBRI XVI; XVIII-XX TESTUEN
EUSKARAZKO ITZULPENA ETA OHARRAK**

Ikaslea:

Naiara de la Hoz Arregui

Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua

2016-2017 ikasturtea

Tutorea:

Gidor Bilbao Telletxea

Ikasketa Klasikoak Saila

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan Ovidioren *Heroides* obraren hainbat poemaren itzulpena eta itzulpenean beharrezkoak diren oharrak eman ditut, hain zuzen ere, hamasei, hemezortzi, hemeretzi eta hogeigarren poemenak. Lanaren helburu nagusia autoreak idatzirikoa ahalik eta modu egokienean euskaratzea izan da, eta horrekin batera, irakurleek ulermen-arazorik izan ez dezaten beharrezkoak diren ohar laburrak ematea. Dena den, itzulpenaz gain, beste hainbat atalek osatzen dute lana.

Lehenik eta behin, testuaren ezaugarriei erreparatu diegu, itzulpen-prozesuan izan ditzakegun arazoak aurreikusteko xedearekin; gainera, testua bera jatorrian bertso-lerrotan idatzia dagoenez, hori ere kontuan hartu beharko da. Ezaugarriekin batera, Ovidiori buruz eta bere obrari buruz mintzatuko naiz, beti ere, gure lanaren muina den *Heroidesen* zentratuz. Jarraian, itzulpen-prozesuaren nondik norakoak azalduko ditut, eta sortutako arazoak azalduko ditut, xehe-xehe.

Ovidiok latinez idatzi zuen obra hau, baina ezin izan dut asko baliatu jatorrizko bertsioaz, ez baitut nahi adinako mailarik itzulpen zuzena egiteko, eta beraz, lan hau egiteko ezinbestekoa izan da zubi-testuak erabiltzea. Batik bat, gaztelaniazko itzulpen bat erabili dut oinarri gisa, Francisca Moya del Bañok eginiko itzulpena hain zuzen (Moya del Baño, 1986), jatorrizko testuari fidelena dela iruditu baitzait. Horrez gain, gaztelaniazko beste bi itzulpen ere erabili ditut, nahiz eta itzulpen libreagoak diren, aurreko bertsioarekin testua guztiz ondo ulertzeko arazoak izan ditudanean batik bat, edo besterik gabe, testuaren beste ikuspuntu bat eskaini dutenean, hain justu, Vicente Cristobalen (Cristobal, 1994) eta Ana Pérez Vegaren (Pérez, 1994) itzulpenak. Ingeleseko itzulpena ere eskura izan dut (Showerman, 1986), baina aparteko kasuren batean soilik baliatu naiz hartaz.

Esan beharrik ez dago testu hau, batik bat, irakurle kultuari dagoela zuzenduta, eta, izatez, ulermen arazo handirik ez lukeela izan beharko; baina dena

den, hainbeste direnez mitologiari egiten diren erreferentziak, garrantzitsua da zenbait ohar argigarri ematea horiei buruz; beraz, korapilatsuenak iruditu zaizkidan kontuei buruzko azalpenak eman ditut oin-ohar modura.

AURKIBIDEA

1. SARRERA: OVIDIO ETA HAREN LANAK; HEROIDES	1
2. ITZULPEN-PROZESUA	3
2.1 Itzulpen arazoak	4
2.1.1 Kultur erreferentziak: Eleo carcere (XVIII, 166)	4
2.1.2 Esaldien ordena eta estiloa	6
2.1.3 Emakumearen ikusgarritasuna	7
2.2 Itzulpen prozesutik ateratako ondorioak	9
3. ITZULPENA	10
3.1 XVI. Parisek Helenari	10
3.2 XVIII. Leandrok Herori	22
3.3. XIX. Herok Leandrori	29
3.4 XX. Akonziok Zidiperi	36
4. BIBLIOGRAFIA	44

1. SARRERA: OVIDIO ETA HAREN LANAK; *HEROIDES*

Latindar literaturako idazlerik entzutetsuenetako bat da Ovidio, oraindik ere haren poesiak hainbat eta hainbaten bihotzak hartzen baititu. Nire lanean *Heroides* obraren inguruan mintzatuko banaiz ere, badira beste hainbat izen loriatsu haren obraren zerrenda luzean, artean, *Amores* eta *Metamorphoses* lan ezagunak.

Publio Ovidio Nason Sulmonan (Italia erdialdean), jaio zen Kristo aurreko 43. urtean, zaldun familia aberats batean. Gazte garaietan Erroman eta Grezian aritu zen erretorika ikasten irakasle onenen laguntzaz zuzenbidearen arloan jarduteko asmoz, baina berehala ikusi zen Ovidiok poesiarako zuen grina eta trebezia. Haren aita ez zegoen ados semeak poesiaz bizitzeko zuen asmoarekin, eta prosan idaztera bultzatzen zuen, baina, hala ere, Ovidiok ezin izaten zuen ekidin bertso-lerrotan idaztea. Aita hil zenean, eta hark zituen aberastasun eta jabetza guztiak eskuratu zituenean, lasai bizi izan zen beti nahi izan zuena eginez; hau da, poesia idatziz. Hainbat tokitan ibili zen Ovidio, horien artean, Atenasen, Asia Txikian eta Sizilian. Hiru emazte izan zituen, eta ezkontza haietatik bi alaba izan zituen, bigarren eta hirugarren emazteekin. Azkenik, K.o. 9. urtean Tomisera erbesteratu zuten, eta bertan hil zen K. o. 17. urtean.

Ovidioren lanei dagokienez, esan beharra dago hainbat lan idatzi zituela, eta horietatik asko ezagun direla gaur egun ere. Denetik aurki dezakegu haren lanen artean, *Heroides*eko maitasun-gutunetatik, emakumezkoen aurpegietarako sendagaiei buruzko lanetara edo maitasun-ikasbidetara. Honako hauek dira, beraz, Ovidioren lanak hurrenkera kronologikoan:

- *Amores*
- *Medea*
- *Heroides*
- *Ars amatoria*
- *Remedia Amoris*
- *Medicamina faciei femineae*

- *Metamorphoses*
- *Fasti*
- *Tristia*
- *Epistulae Ex Ponto*
- *Ibis*
- *Halieutica*
- *Nux*

Heroides dagokionez, aipagarria da, batik bat, greziar mitologiako zenbait emakumek haien maitaleei idatziriko gutunez osatzen den obra bat dela. Hala eta guztiz ere, gutun guztiak ez dira emakumezkoek haien maitaleei idatzirikoak, badira zenbait horien artean non maitaleek gutun horiei erantzuten dieten ere. 21 gutunek osatzen dute lana, eta esan daiteke, nolabait, bi zatitan banatzen dela. Alde batetik, lehenengo hamabost gutunak emakumeek idatziak dira, erantzunik jasotzen ez dutenak, eta beste aldetik, 16. gutunetik aurrerakoak ditugu, maitaleen arteko gutun-trukean oinarritzen direnak, eta gizonaek ere idatziak direnak. Gutun horietan guztietan, aurrean ez dagoen norbaiti idazten zaio, ausente dagoen norbaiti; eta gaiak, beti maitasunaren ildotik joan ohi dira. Distantzia, ahanztura eta ausentzia izan ohi dira heroien gutunen oinarri, eta gai horiei jarraiki idazten diete maitaleei bihotzeko minen berri emanez.

2. ITZULPEN-PROZESUA

Lehenik eta behin aipatu nahiko nuke *Heroidesen* itzulpen-prozesua erabat ezberdina izan dela lau urte hauetan zehar graduiko ikasgaietan egin ditudan itzulpenekin alderatuta. Honako hau Gradu Amaierako lan bat izanik, eta beraz, tutorearen gidaritzapean eginiko lana izanik, nahiko aldatu da lan egiteko modua. Lehenik eta behin, gogoan edukitzeko kontua da *Heroides* izatez latinez idatzia dagoen testu bat dela, eta lanaren laburpenean aipatu moduan, latinari buruz dudak jakintza ez dela nahikoa izan testua bera ongi ulertzeko, eta are gutxiago itzulpen egoki bat egin ahal izateko jatorrizkotik abiatuta. Hori dela eta, aurrez aipatu ditudan zubi-testuetan oinarritu naiz obra hau itzultzeko, eta horrez gain, Gidor Bilbao tutorearen laguntza ere jaso dut behar izan dudanean ulermen-arazoak konpontzeko.

Horrez gain, testuaren ezaugarriak erreparatuta, bada hasieratik izan dudanean beste arazo bat; jatorrizko testua bertso-lerroetan idatzia egotea, eta ez orain artean egindako itzulpenak bezala, prosaz. Kontu hori izan zen lan honetan izandako lehenengo buruhaustea, ez baitzen gauza erraza izan itzulpena nola egin hautatzea. Hasieran *Heroidesen* izaera gordetzeko egokiena bertso-lerrotan itzultzea iruditu bazitzaidan ere, azkenean prosaz itzultzea erabaki dut, kontuan hartuta testuaren konplexutasuna, eta poesiaren arloan ez naizela hain abila. Horregatik, eta tutorearen gomendioei jarraiki, uste dut egokiagoa dela testua prosaz itzultzea kasu honetan, nahiz eta iruditu modu horretan Ovidioren idazmoldearen zati handi bat galtzen dela.

Bestalde, itzulpenarekin hasterakoan, gogoan izan behar dut norentzat ari naizen itzultzen, eta kasu honetan, irakurle kultua izan dut gogoan, baina latinik ez dakiena edo ezagutza handirik ez duena behintzat. Hori dela eta, eta Gradu Amaierako Lan honek eskatzen duen moduan, itzulpen soilaz haratago joan behar izan dut, eta beraz, itzulpenarekin batera oinohar gisa zenbait argibide eman ditut, batik bat testuan erruz ageri ziren pertsonaia mitologikoei buruz eta bestelako kultur-erreferentzien inguruan. Ohar horiez gain, lekuizenei buruzko zenbait ohar ere atxiki ditut, zenbait kasutan beharrezkoa iruditu baitzait itzulpena behar bezala ulertu ahal izateko. Beraz, itzulpenaren hartzaileak irakurle kultuak izango direla eta oinoharrak atxiki ditudala kontuan hartuta, ahalik eta itzulpen egokiena

egitea izan da nire asmoa. Horrenbestez, nire itzulpena egiteko oinarri gisa ere ahalik eta zubi-testu fidelena erabiltzea erabaki dut.

Laburpenean aipatu dudan moduan, Francisca Moya del Bañok (1986) eginiko itzulpena izan dut oinarri nagusi lan hau egiteko, beti ere, alboan izanik gaztelaniazko beste bi itzulpen: alde batetik, *Alianza Editorialek* argitaratutako Vicente Cristóbalena (1994) eta bestetik, *Gredos* argitaletxeak plazaratutako Ana Pérez Vegarena (1994). Gaztelaniazko itzulpenez gain, Grant Showermanek (1986) egindako ingelesezko itzulpen batez ere baliatu naiz, baina ohiko kasuetan gaztelaniazko bertsioetara jo dut. Oinarri gisa Moya del Bañoren lana hartzearen arrazoia itzulpen fidelena iruditu zaidala izan da, gaztelaniazko beste bi bertsioak askoz libreago itzulita daudela iruditu baitzait.

2.1 Itzulpen arazoak

Itzultzen hasi aurretik zubi-testuari erreparatuta zenbait ezaugarri aztertu ditut, lana euskarara ekartzerakoan arazoak sortu zitzaizketeenak. Alde batetik, aipagarria da oinarri gisa erabili dudan itzulpenak askoz sintaxi korapilatsuagoa duela gainontzekoek baino, eta horrek euskarara ekartzerakoan zenbait arazo sor ditzakeela aurreikusi ahal izan dut. Horrenbestez, itzulpen-prozesuan sortu zaizkidan arazo eta zalantzei buruz arituko naiz hemendik aurrera; hasteko, kultur erreferentzien inguruan mintzatuko naiz, kasu konkretu batean ardaztuta. Jarraian, estilo kontuez jardungo dut, eta euskaraz jatorri testuaren estiloa mantentzeak izan ditzakeen zailtasunei buruz. Azkenik, berriz, bestelako kontu batez hitz egingo dut, arazo izan gabe kasu interesgarria iruditu baitzait, eta hor, itzultzailearen hautu pertsonalen garrantziari buruz hitz egingo dut.

2.1.1 Kultur erreferentziak: *Eleo carcere* (XVIII, 166)

Hain urrun dugun garai batean idatzia izanik, *Heroides* gaur egun edozein irakurlek kostata ulertuko lituzkeen kultur-erreferentziaz josita dago. Gutunetan hainbat eta hainbat pertsonaia mitologiko eta haien arteko harremanak eta haien istorioak aipatzen dira, eta kultur-erreferentzia horiek, noski, oin-oharren laguntzarekin, irakurle kultuek ulertuko dituzte. Baina hala ere, kultur-erreferentzia konkretu batekin izan ditudan arazoak eta zalantzak argituko ditut hemen.

Honako hau aipatzen da oinarri gisa erabili dudana bertsoan: «*Ut celer Eleo carcere missus equus.* (lat.) / *Corren hacia su premio como el veloz caballo lanzado desde la cárcel elea* (gazt.)» (Moya del Baño, 1986:156). Itzultzaileak berak ere oin-oharra gehitu dio *cárcel elea* horri, eta bertan, honako azalpen hau ematen du:

«*Carceres, en los circos romanos, son las cocheras o cuerdas de donde partían los carros que iban a tomar parte en las carreras. Aquí se elude, evidentemente, a los juegos olímpicos, pues Olimpia se encuentra en la Élide.*» (Moya del Baño, 1986: 156).

Oso baliagarria egin zait ohar hori *carcer* zer den jakiteko. Hala ere, iruditzen zait ez dudala lortu transmititu nahi den irudi zehatz hori ikustea, hasiera batean «korta» hitza soilik erabiltzea erabaki bainuen («zirko erromatarreko kortatik»), oharrean esaten denarekin bat datorrelako. Baina, tutorearekin hitz egiterakoan ikusi ahal izan nuen benetan zer motatako «kaiolei» egiten zien erreferentzia. Beraz, horri nola deitu beharko niokeen eztabaidatzen ari ginela, *box* hitza atera zen.

Kontua da *box* hitzak oso ongi gordetzen duela azaldu nahi den irudi hori, eta gaur egungo kirol-probetan asko erabiltzen dela, bai zaldi-lasterketatan bai eta bestelako kirol-frogetan ere, esate baterako, bat formulako auto-karreratan. Beraz, hasieran soluzio ona izango litzatekeela iruditu zitzaigun, eta halaxe uztea erabaki genuen. Baina sakonago pentsatuz, ikusi nuen beharbada anglizismo bat sartzea halako izaera duen itzulpen batean ez zela egokiena izango.

Horregatik, pentsatu dut egokiena corpusetan begiratzea dela, ikusteko benetan ea anglizismo hori erabiltzen den ala ez. Egungo Testuen Corpora (Sarasola; Salaburu; Landa,2013) erabili dut ikusteko ea termino hori gaur egun erabiltzen den ala ez, eta ikusi ahal izan dut egunkarietan gaur egun bat formulako berriei buruz hitz egiteko erabiltzen dela. Beste ikuspuntu bat ere izateko, Ereduzko Prosa Gaur (Sarasola; Salaburu; Landa; Zabaleta, 2014) corpusera ere jo dut, eta bertan ere antzeko emaitzak lortu ditut. Kirolen arloari dagokionez 13 emaitza aurkitu ditut corpusean, baina horietatik bat bera ere ez da hipikari loturikoa, beraz, ez zait oso baliagarria. Horri anglizismoa izatearen arazoa gehituta, iruditu zait ez dela guztiz egokia *box* erabiltzea kasu honetan, termino horrek esanahia guztiz

hartzen badu ere. Beraz, egokiagoa iruditu zait kasu honetan «kaiola» erabiltzea, eta gero, oin-ohar gisa, *box* hori aipatu, modu horretan ez baita galtzen testuak duen «zahar» kutsu hori.

Beraz, *box* erabilia estiloaren eta testuaren izaeraren zati bat galduko litzatekeela pentsatuz, azkenean «kaiola» erabiltzea iruditu zait egokiena, *carcere* hitzaren esanahia oso ondo gordetzen duela pentsatzen baitut.

2.1.2 Esaldien ordena eta estiloa

Aurrez aipatu dudan moduan, oso estilo hanpatua du *Heroidesek*, mendeko esaldi luzeen lotura konplexuz osatua, eta hori izan da itzulpen-prozesuan izan dudan zailtasunik handieneteakoa. Iruditu zait nola edo hala estilo hori gordetzen saiatu behar nuela, eta horretarako batik bat hitzez-hitzeko itzulpena egiten saiatu naiz, posible zen kasuetan behintzat, esaldi motzen errazkeriara jo gabe. Besteak beste horren ondorioz, zenbait kasutan galdegaiaren posizioarekin arazoak izan ditut, euskaraz beharbada ez zelako hain natural gelditzen hizkera hori.

Horregatik, balantzan jarri behar izan dut alde batetik, euskararen egokitasuna, eta beste aldetik, testuraren estiloa mantentzea. Kasu honetan ere, itzulpen-teoriek badute zer esan, eta beti gertatzen den moduan, estiloa mantentzearen garrantziari buruzko iritziak ere anitzak dira. Adibidez, Fraser Tylerren arabera, itzulpengintzaren hiru printzipio nagusietan sartzen da estiloa eta moldearen mantentzea (*Essay On The Principles of Translation*, 1970). Jakak bere tesian aipatzen duen moduan (Jaka 2012:16) «hirugarren itzulpen mota da Goethek bere garaiko aro gisa definitzen duena eta itzulpen mota gorentzat jotzen duena; bertan, itzultzailea jatorrizkoaren berdina den itzulpena egiten saiatzen da, ez jatorrizkoaren ordeko gisa funtziona dezan, baizik eta haren lekua har dezan». Beraz, ikus dezakegu itzulpen-teoria horien arabera ezinbestekoa dugula testuaren estiloa mantentzea, eta *Heroidesen* kasuan ere hala egin behar zela iruditu zait, batik bat, Schleiermacherren teorian oinarrituz. *Ueber die verschiedenen Methoden des Uebersetzens* (1816) lanean azaltzen du testuak arrotz kutsua izan behar duela, eta beraz, teoria hori ere oinarri hartuta, erabaki dut azkenean zenbait kasutan egokia zela testuaren estiloa mantentzeko hori egitea. Honako hau adierazten du Jakak arrotzasun puntu horren inguruan:

«Horrela itzulitako testu batek arrotz kutsu nabarmena du; izan ere, helburua ez da idazleak xede-hizkuntzan idatzi balu bezala irakurtzen den testu bat sortzea, baizik eta xede-hizkuntzako irakurle batek sorburu-hizkuntzan idatzitako testu bat irakurtzean sentitzen duen inpresio bera eragingo duen testu bat sortzea. Horretarako, itzultzaileak metodo alienatzaile bat erabili behar du, metodo naturalizatzaile baten ordeztu». (Jaka 2012; 17)

Horregatik saiatu naiz ahal zen moduan behintzat idazmolde hori mantentzen, nahiz eta euskararen oinarriek sarri modu ez hain korapilatsu batean itzultzera bultzarazi. Horren adierazle izan daiteke honako esaldi hau: «Komeni da zuk errepikatzea nik zuhaitzetik erauzitako fruituak zure esku garbietara eraman zituen hitzak» (de la Hoz, 2017:36), oso esaldi luzea izan gabe duen arrotz kutsu horregatik. Iruditzen zait modu horretan itzulita gordetzen duela konplikazio puntu bat berez nahita behintzat gordeko ez nukeena.

2.1.3 Emakumearen ikusgarritasuna

Gaztelaniaz genero marka duen determinatzaile bat nola itzuliren inguruan zalantza izateak parada ederra eman dit emakumeen ikusgarritasunaren inguruan gogoeta egiteko. Egon dira pasarteak non latinezko zein gaztelaniazko bertsiotan emakumeei erreferentzia egiteko determinatzaile bat genero-markarekin agertzen zen. Kasu horietan, garrantzia handirik eman gabe horri, bere horretan itzultzea erabaki nuen, besterik pentsatu gabe. Adibidez kasu hauetan: (*Nec tibi par usquam Phrygia nec solis ab ortu Inter formosas altera nomen habet*). «Ni en ningún lugar de frigia, ni donde nace el sol, otra entre las hermosas tiene una fama igual que la tuya» (Moya del Baño, 1986:126). «No hay ninguna igual a tí en parte de Frigia, ni desde el orto del sol tiene otra, entre las bellas, el renombre que tú tienes» (Cristobal, 1994:271). Kasu horretan, nik, buelta askorik eman gabe, «persona» erabili nuen, baina tutorearekin hitz egiterakoan literaturan emakumeen ikusgarritasunaren gaia atera zen. Horregatik, gaiaren inguruan apur bat ikertzea erabaki nuen, eta hainbat itzulpen teoria alderatu nituen. Gainera, *Heroidesen* ageri diren ia gutun guztiak emakumeek idatziak izatea, iruditzen zait badela beste arrazoi bat emakumeari ikusgarritasuna ematen saiatzeko itzulpenean. Modu horretan ikusi ahal izan nuen zilegi litzatekeela kasu horietan

«emakume» hitza erabiltzea. Honako hau dio Suzanne Levine itzultzaile eta ikerlari amerikarrak horri buruz:

«Translation should be a critical act, however, creating doubt, posing questions to its reader, recontextualizing the ideology of the original text. Since a good translation, as with all rhetoric, aims to (re)produce an effect, to persuade a reader, it is, in the broadest terms, a political act.» (Levine 1991: 3,4)

Beraz, iruditzen zait zilegi dela jatorri testuan determinatzaile bat erabiltzen den kasuetan, edo «persona» soilik erabiltzen denetan «emakume» hitza erabiltzea, nahiz eta jatorrizko bertsioan hitz hori bera ez ageri. Funtsean, hori bera esaten baitu, eta beraz ez baitu eduki akatsik eragiten.

Honako hau da kasu horren adibideetako bat: gaztelaniazko bertsioan hau aipatzen da: «*La que tocas ha de ser mía*» (Moya del Baño, 1986:176). Euskaraz, hasiera batean «nor» hori eliditu banuen ere, eta hasieran «ukitzen duzunak nirea izan behar du» moduan itzuli banuen ere, tutorearekin gaiari buruz hausnartzerakoan iruditu zitzaidan egokia izango litzatekeela modu honetan itzultzea: «ukitzen duzun emakume horrek nirea izan behar du» (de la Hoz, 2017:40). Gainera, iruditzen zait «ukitzen duzun horrek» erabilia mespretxu puntu bat soma daitekeela, eta «emakume» hitza sartuta beste errespetu puntu bat ematen diola. Gauza bera gertatzen da honako esaldi honetan ere: «*Para conseguir la salud, unas soportan el hierro y el fuego: un jugo amargo ofree a otras una triste ayuda; nada de esto precisas, sólo evita el perjurio y salva a la vez a tí, a mí y a la fe dada.*» (Moya del Baño, 1986: 177). Hasieran bere horretan itzultzea pentsatu banuen ere, azkenik, kasu honetan ere egokiagoa iruditu zitzaidan «emakume» hitza sartzea, eta beraz, honela itzultzea erabaki nuen: «Emakume batzuek, osasun ona izateko, burdina eta sua jasaten dituzte; beste batzuei zuku mingots batek eskaintzen die laguntza apurra; ez duzu halako ezeren beharrik; zinaustea ekidin eta horrela salbatuko duzu zure burua, eta era berean, ni, eta eman zaizun fedea» (de la Hoz, 2017:41).

2.2 Itzulpen prozesutik ateratako ondorioak

Gradu Amaierako Lan honetan eginiko itzulpen-prozesuak, ikusi bezala, zenbait erronka ekarri dizkit, eta aldi berean, gogoeta egiteko aukera ederra. Gai horien inguruan egindako hausnarketatik zenbait ondorio nagusi atera ahal izan ditut, jarraian, xehe-xehe azalduko ditudanak.

Lehenengo arazoak lagundu dit ikusten nola zenbait kasutan garrantzitsua den terminologiaren zehaztasuna alde batera uztea, beti ere funtsean mezua ongi transmititzen den artean, testuaren estilora moldatzeko. Argi geratu da kasu horretan, nahiz eta baden hitz egokiagorik «kaiola» baino, ez litzatekeela egokia izango, anglizismoa izanik testuaren izaera eta estiloari kalte egingo liokeelako.

Bestalde, estiloaren aferatik honako ondorio hau atera dut: egokiena estiloa mantenduz hizkera jatorrarekin itzultzen saiatzea litzateke, baina badira kasuak non hori ez den guztiz posible, hizkuntza bakoitzak bere ezaugarri propioak baititu. Beraz, esan daiteke itzultzailearen boterea handia dela, hark egiten dituen hautu pertsonalek eragin handia izaten baitute lanean. Antzeko ondorioa atera ahal izan dut hirugarren kontutik ere; ezin dezaket esan erabaki hori inolako arazorik izan denik, baina, zenbaitetan itzultzaileak beharbada garrantziarik gabeko kontuak diruditenen inguruko erabakiak hartu behar ditu, eta nolabait esateko, testuaren izaeran eragiten du.

3. ITZULPENA

3.1 XVI. Parisek Helenari

Zuri, Ledaren alaba zaren horri,¹ Priamida honek² bidaltzen dizut zuk eman ez gero soilik izan dezakedan osasuna.

Hitz egingo al dut? Edo ez da beharrezkoa jada nahiko nukeena baino nabarmenago agertzen den suaren adierazlerik azaltzea? Nahiago nuke maitasun hau isilpean gordeko balitz, beldur eta poztasun sentimenduak nahasten zaizkidan garaiak pasa arte. Baina gaizki disimulatzen dut: hain zuzen ere, nor izango da gai beti bere argiarekin bere burua salatzen duen sua ezkutatzeko?

Hala ere, horri ere nire ahotsa jartzea espero baduzu, honako hau esango dizut: «maitasunak kiskaltzen nau». Hor dituzu nire gogoaren hitz mezulariak. Erregutzen dizut: errespetatu ezazu nire aitormena, eta irakur ezazu jarraian dagoena, eta ez aurpegiera zakarrez, arren, zure edertasunera egokitzen den aurpegierarekin baizik. Eta orain izugarri atsegina zait pentsatzea, nire gutuna jaso duzun moduan hartuko nauzula ni ere. Baiezta dadila esperantza hori, eta desio dut Maitasunaren amak ez ninduela alferrik bidali bidaia honetara.

Jainko-aholkuek ekarri binaute hona (ez ezazu akatsa egin ezjakinean), eta boteredun jainkotasun batek nire alde egiten du. Egia esan, sari baliotsu bat ari naiz eskatzen, baina ez merezigabea; Ziterek³ berak agindu zizun nire ezkontza-ohea. Hura izanik nire gidari, Sigeoko itsasertzetik eta itsaso zabalean zehar, Ferekloren⁴ itsasontzian igaro nituen bide arriskutsuak. Hark eman zizkidan haize leunak eta hark aldeko haizeak, itsasoan jaioa izanik boterea baitu itsasoan. Jarrai dezala, bada, nire alde egiten, eta, ozeanoaren indarrarekin egiten duen moduan, menderatu dezala nire bularraldeko sua, eta gida ditzala nire desirak zure portura.

¹ Helena.

² Paris, Priamoren semea.

³ Ziterea edo Venus, maitasunaren jainkosa.

⁴ Tektonen semea, Parisen itsasontzia eraiki zuen arotza.

Ekarri egin ditut sugarrak, ez ditut hemen aurkitu; haiek izan baitziren bidaia hain luzea izatearen arrazoi. Hain zuzen ere, ez dira izan ez negu mehatxatzailea⁵ ezta bidez nahastea ere ni hona iristearen arrazoa. Tenaroko⁶ lurra izan da nire itsasontziek bilatzen zutena. Ez pentsa itsasoa merkantzia eramateko zeharkatu dudarik (ditudan aberastasunak jainkoek babes ditzatela!). Ez nator hiri greziarretara bisitari gisa ere (nire erreinuko hiriak aberatsagoak dira). Zure bila nabil, urrezko Venusek nire oherako agindu zuen horren bila; ezagutu aurretik desiratu zintudan; zure aurpegia begiekin ikusi aurretik ikusi nuen nire buruan. Zure edertasunaren inguruko zurrumurrua izan nuen lehenengo berri. Eta ez zaitez harritu komeni zen moduan maite bazaitut, urrunetik jaurtitako geziek zauritu binaute. Hala erabaki du patuak. Ez zaitez ausartu hori aldatzera; onar ezazu kontatzen dizudan dena zintzotasun osoz.

Oraindik nire amaren barrenean nengoela, erditzeko garaia atzeratu egin zen; pisu justua zegoen jada sabelean. Sutan zegoen ikaragarritzko lastargi bat ateratzen zitzaiola sabel betetik iruditu zitzaion amari ametsetan. Ikaratuta, altxatu egin zen, eta Priamo⁷ zaharrari eta igarleei gau iluneko irudipen beldurgarri horien berri eman zien. Igarleak iragarri zuen Ilio⁸ Parisen suaren ondorioz erre beharko dela. Lastargi hura nire bihotzarena zen, orain den bezalaxe.

Herriko semea nirudien, baina nire edertasuna eta indarra nire ezkutuko noble-izaeraren erakusle ziren. Bada toki bat Idaren bihotzeko zuhaitzez beteriko herrixketan, bidetik urrunduta, pinu eta zurbeltzez betea, non ez dabilen larrean ez ardirik, ez haitzetako antxumerik, ezta aurpegi zabaldun idi geldorik ere. Han nengoen ni zuhaitz batean bermaturik, Dardaniako harresiei eta bertako jauregi bikainei so, baita itsasoari ere, oin batzuek lurra iraultzen zutela iruditu zitzaidanean (benetan ari naiz, nahiz eta sinesgaitza dirudien). Nire begien aurrean gelditu zen, orduan, hego bizkor horiek mugitzen zutelarik, Atlas handiaren eta Pleioneren biloba⁹ (ikusi ahal izan nuenez, utzi beharko didate

⁵ *hiems* «enbata» ere.

⁶ Lazedemonia edo Esparta.

⁷ Troiako gerrako garaian errege zen gizona.

⁸ Troia.

⁹ Merkurio.

kontatzen); jainkoaren hatzean urrezko kaduzeoa¹⁰ zegoen; eta haren ondoan, hiru jainkosa: Venusek, Palasek eta Junok beren oin finak jarri zituzten belazean.

Txundituta geratu nintzen, eta dardara hotz batek ileak tentetu zizkidan, hegodun mezulariak honako hau esan zidanean: «ez zaitetz beldur izan; edertasunaren epaile zara; amaiarazi ezazu jainkosek beren edertasunaren inguruan duten borroka hau; bakarrak garaitu ditzake beste biak». Ez nezan ezetzik esan, Jupiterren izenean bidali zuela esan zidan, eta berehala zeruetara igo zen berriz ere.

Nire bihotza indarberritu egin zen eta, bat-batean, berriz ere ausardiaz beterik, ez nuen jainkosa bakoitzari nire begiekin begiratzeko zalantzarik izan. Denek merezi zuten irabaztea, eta epaile nintzen horretan, lotsa sentitu nuen ezin zutelako denek irabazi; baina, hala ere, ordurako besteak baino gehiago gustatzen zitzaidan bat; jakingo duzun moduan, harengandik zetorren maitasuna eta irabazteko desira handia.

Nire epaia erosten saiatu ziren gartsuki, opari itzelen bidez. Jupiterren emazteak erreinuak eskaini zizkidan; alabak, loria militarra; nik neuk ere ez dakit ea aberatsa izan nahi ote dudan, edo ausarta. Venusek, goxo-goxo, irribarre egin zuen, eta honako hau esan zidan: «Paris, ez zaitzatela hunkitu nolabaiteko beldurrez beteriko opari horiek, nik emango dizut maitatu ahal izango duzuna, eta Leda¹¹ ederraren alaba are ederragoa zure besoetan bilduko da». Hori esanda, garaile izan zen hala edertasunagatik nola opariengatik eta zeruetara itzuli zen.

Artean, nire patua zorionekoa bihurturik, uste dut erregearen seme gisa ezagutu nautela, zantzu argiek erakusten baitute. Jauregian pozik daude, denbora luzearen ostean semea berreskuratu baitute, eta, ordutik, Troiak egun hau ere jaiegun du. Nik zu desiratzen zaitudan moduan desiratu ninduten dontzeilek; baina zeuk bakarrik izan dezakezu hainbatek desiratu zuten guztia. Eta ez ninduten erregeen eta buruzagien alabek soilik bilatu, ninfek ere maitatu eta zaindu ninduten. Zein emakume izango nuke Enone¹² baino nahiago? Munduan ez dago, zutaz gain, bera baino errain hoberik Priamorentzat.

¹⁰ Heraldok eramaten zuten haga da kaduzeoa, sugez eta hegoz apaindua.

¹¹ Testioren alaba eta Espartako Tindareo erregearen emaztea.

¹² Parisen lehenengo emaztea; Helenaren bila joateko utzi zuen Parisek.

Baina denek aspertzen naute, zurekin, Tindareoren alaba zaren horrekin, ezkontzeko esperantza dudanetik. Esna nengoela ikusten zintudan nire begiekin; gauez ere nire arimarekin ikusten zintudan, amets goxoak nire begiak ixten zituenean. Zer gertatuko da zu aurrean izatean, ikusi aurretik jada atsegin bazintudan? Erre egiten nintzen, nahiz eta sua urrun egon.

Eta ezin izan diot gehiago eutsi desiraturikoaren bila ibilbide urdinetik joateko esperantzari. Frigiako aizkorak botatzen ditu Troiako pinuak eta baita itsaso zelairako baliagarriak diren beste zuhaitzak ere; Gargaro¹³ malkartsuak bere zuhaitz ederrak galdu ditu, eta Ida izugarriak hainbat ohol eman dizkit. Itsasontzi bizkorren egiturarako balioko duten haritzak tolesten dira, eta gila makurra alboarekin trabatzen da. Mastari antenak eta haize-oihalak gehitzen dizkiogu eta popa konkortuan jainkoen irudiak pintatzen ditugu;¹⁴ baina neu naraman ontziak ezkontzaren bermatzaile dudan jainkosa¹⁵ du pintatua, Cupido txikiaren alboan.

Itsasontzi eginberriei azken ukitua eman ostean, luzamendurik gabe Egeo itsasora zuzentzeko agindu zidaten; nire aitak eta amak beren erreguekin nire asmoak oztopatzen dituzte eta proposatutako bidaia beren ahotsez atzeratzen dute; hala egiten du baita nire arreba Kasandrak ere, ileak airean, nire itsasontzia haize-oihalak askatzera zihoala, honako hau oihukatuaz: «Nora zoaz arrapaladan? Suteak ekarriko dituzu. Ez dakizu ondo zeugarren bila zoazen itsaso horietan zehar». Benetako igarlea izan zen; hark iragarritako sua topatu dut eta maitasunaren garra dago nire bihotz xamurrean!

Portutik irten nintzen, eta haizea alde nuela aprobetxatuz, zure lurretara heldu nintzen, o, ninfa ebalidea!¹⁶ Zure senarrak apopilo hartu ninduen; hori ere jainkoen erabakiagatik eta gogoagatik gertatu zen. Hark erakutsi zidan Lazedomia osoan erakustea eta ikustea merezi duen guztia. Zure edertasun goraiapatua ikusteko irrikan nengoenez, ordea, ez zegoen bertan nire bihotza lapurtuko zuen ezer.

¹³ Ida mendiko tontorrik handiena, Kotilerekin batera.

¹⁴ Itsasontziaren zaindari ziren jainko-jainkosen irudiak pintatu ohi ziren popan.

¹⁵ Venus.

¹⁶ Ebalu Tindareoren aita izan zen.

Ikusi zintudanean txundituta gelditu nintzen, eta zora-zora eginda; sentitu nuen nola nire bihotzeko txoko ezkutuen ere sutan zegoen, ordura artean inoiz izan gabeko sentimenduen ondorioz. Zitereak, oker ez banago, zure antza zuen nire epaiketara etorri zenean. Zu ere etorri izan bazina, Venusen garaipena kolokan egongo zatekeen. Zuri buruzko zurrumurruek goraiipamen handiak zabaldu dituzte, eta ez dago herrialderik zure edertasuna ezagutzen ez duenik; ezta Frigian, ezta eguzkia jaiotzen den tokian ere, ez dago zu bezain ezaguna den emakume ederrik.

Hau ere sinets diezadakezu: zure laudorioak zure benetako edertasuna baino txikiagoak dira, eta zure edertasunaren inguruan esaten denak ere ia kalte egiten dizu. Hemen zure ospeak agindu zidana baino gehiago topatu dut, eta zure laudorioak errealitatearen aurrean motz geratzen dira.

Horregatik gartu da jada dena ezagutzen zuen gizona, Teseo;¹⁷ horren gizon ospetsuarentzako moduko harrapakin ederra izango zinatekeela iruditu zitzaion, biluzik palestra distiratsuan zenbiltzala ikusi zintuenean, gizon biluzien artean nahastuta, zure herriko ohiturei jarraituz. Laudatu egiten dut hark zu harrapatu izana; harritzen nau, ordea, bueltan ekarri izanak. Halako harrapakin ederra ahalegin handiz atxiki beharko zukeen.

Lehenago utziko nuke nire burua odoleztatutako lepotik ateratzen, zu nire ohetik ateratzen baino! Desiratuko al lukete nire eskuek inoiz zu uztea? Jasango al nuke bizirik, zu nire altzotik joatea? Itzuli beharko bazintut, zerbait hartuko nuke zugandik lehenik, ordea, eta nire Venus zerbaitez probestuko litzateke; zure birjinitatea dastatuko nuke, edo zure birjinitatea bere horretan utziz lapurtu daitekeen edozer.

Errenditu zaitez; jakingo duzu nolakoa den Parisen irmotasuna. Su-metaren garrak soilik itzaliko ditu nire maitasunaren garrak.

Aspaldian Jupiterren emazte eta arrebak¹⁸ eskainitako erreinu izugarriak baino nahiago izan zaitut zu, eta muzin egin nion Palasek¹⁹ eskainitako gerlari-grinari, nire besoekin zure lepoa

¹⁷ Atenastar heroi handiena.

¹⁸ Junok.

¹⁹ Jakinduriaren jainkoa, Krio eta Euribiaren semea.

besarkatzeko aukera izatearren. Eta ez naiz damu, eta ez zait inoiz irudituko aukera okerra egin nuenik ere; nire gogoak bere horretan jarraitzen du tinko. Gauza bat soilik eskatzen dizut: ez ezazu nire esperantza hutsal bihurtzen utzi, otoi, hainbesteko nekearekin bilatzea merezi duzun horrek.

Ez dut, nik, leinu noblerik ez dudan honek, ezkontza noblerik nahi; ez zara nire emaztea izateagatik lotsatuko, sinetsidazu: arretaz begiratu gero, ikusiko duzu nire familian Pleioneren alaba bat eta Jupiter daudela; eta zer esanik ez aitona-amonei buruz. Hain handiak izanik ia bisitaezinak diren Asiako erreinuen jabe da nire aita; lur aberatsetan aberatsenak dira. Hainbat eta hainbat hiri ikusiko dituzu, eta urrezko jauregiak, eta beren jainkoen mailako tenpluak. Ikusiko duzu Ilio, eta alboan dorre altuak dituztelarik, bere harresiak, Feboren liraren doinuek lagunduta eraiki zituztenak.²⁰ Eta zer esan dezaket hango gizon kopuruaren inguruan? Lur horiek justu-justu dira nahikoa herri guztia hartzeko. Zure bila denak batera korrika irtengo dira Troiako emaginak, eta gure atarietan ezingo dira Frigiako neska gazte guztiak sartu. Oi, zenbat aldiz esango duzu: «ai, zein pobrea den nire Akaia maitea!». Ikusiko duzu etxe bakar batek dituela (edozeinek!) hiri batek adinako aberastasunak.

Baina ez da zilegi zure Esparta mespretxatzea; nire ustez, zu jaio zinen lur hori zorionekoa da; baina Esparta txikia da, eta zuk, berriz, bizimodu dotoreagoa merezi duzu. Halako edertasuna ez dator bat halako tokiarekin; zure edertasun horrek festa ikaragarriak eta plazer berri ugari merezi du. Nire arrazako gizonen dotorezia ikusten duzunean, zer pentsatuko duzu Dardaniako emakumeenari buruz?

Eman ezazu amore, konfiantzaz, eta ez ezazu mespretxatu senar frigiarrik, Terapneko²¹ larreetan jaiotako neskatxa horrek. Frigiarra zen, nire familiakoa, orain jainkoek edan behar duten ura nektarrarekin nahasten duen hura.²² Frigiakoa zen Auroraren senarra; hala ere,

²⁰ Kondairaren arabera, harriak bildu egin ziren Apoloren liraren doinuekin.

²¹ Terapne Lakoniako herrixka bat zen.

²² Ganimedes. Zeusek Olinpora eraman zuen, bere edertasunarekin zoratuta. Jainkoei edalontzia betetzen jarduten zuen nektarrez.

gauaren azken orduak amaiarazten dituen jainkosak hartu zuen beretzat. Frigiarra zen, halaber, Ankises, hegodun maitasunaren amarekin Ida gainean atseginez oheratu zena.

Eta, zuk epaitzen bagaituzu, ez dut uste, gure adina eta itxura alderatuz gero, Menelao nire aurretik jarriko zenukeenik. Nik ez dizut emango Eguzkiaren distira uxatzen duen aitagarrebarik; bere zaldiak, beldurtuta, oturuntzatic urrunarazteko gai den gizonik. Priamok ez du bere aitagarrebaren heriotzaz odoleztatutako aitarik,²³ ezta bere hilketaz Mirtoo itsasoari izena jartzen dionik ere; nire birraitona ez dabil Estigeko urmaelean sagarrak topatu nahian, eta ez du ura topatu nahi uren artean.²⁴ Baina, zer axola du horrek, horien ondorengo batek baldin bazauzka harrapatuta? Jupiter etxe honetako aitagarreba izatera behartua dago.

Bidegabekeria! Lotsagarri horrek gauero zaitu berarekin eta zure besarkadez gozaten du behin eta berriz. Nik, ordea, justu-justu ikusi ahal zaitut mahaia jartzen denean, eta une horrek ere ekartzen dizkit beste hainbat sufrimendu. Izan ditzatela nire aurkariak halako otorduak, ardoa zerbitzatu ondoren oinazetzen nauten horien modukoak. Lotsarazi egiten nau bere abegitasunak, landatar horrek bere besoak zure lepoan inguratzen dituenen. Hisiaz eta jeloskortasunez betetzen naiz (tira, zergatik ez dut ba dena esango?) zure gainean zapia jarrita zure soin-atalak laztantzen dituenen. Nire aurrean muxu goxoak eman dituzuenean, edalontzia hartu eta nire begien aurrean jarri dut. Beste aldera begiratu dut estu-estu heldu zaituenean, eta artean, janaria bildu zait aho gogogabea, irentsi ezinik.

Sarri, hasperen egiten dut eta ikusi izan dut nola, zuk, apain, ezin izan diozun irribarre txiki horri eutsi. Sarri, ardoarekin itzali nahi izaten dut sugarra, baina hazi egiten da eta mozkorrak sua gartzen du.

Burua biratuta etzaten naiz, gehiegi ez ikusteko; baina zuk berehala eskatzen duzu nire begirada. Ez dut jakiten zer egin: min egiten dit ikusteak, baina min gehiago egiten dit zure edertasunari bizkar eman behar izateak. Ahal den modudan eta ahal dudan moduan, nire

²³ Atreok (Helenaren aitagarreba, Menelaoren aita) bere semearen gorpua atera zion mahaira bere anaia Tiestesi.

²⁴ Tantaloren sufrimenduari egiten dio erreferentzia. Betirako egarri eta gose izatea izan zen bere zigorra bere seme Pelope hil eta jainkoen mahaian zerbitzateagatik.

pasioa ezkututzen saiatzen naiz, baina, hala ere, azaleratu egiten da ezkutatu nahi dudan maitasuna. Eta esaten dudan hori guztia ez dira hitzak soilik. Nire zauriak sentitzen dituzu, sentitu egiten dituzu, eta espero dut zu izatea ezagutzen dituen bakarra.

Ai, zenbat bider begiratu behar izan dudan beste aldera negar egitean, ez zezan hark nire malkoen arrazoiak galdegin. Ai, zenbat bider kontatu ote dudan maitasun istorioren bat, jada mozkorturik, hitz guztiak banan banan zure aurpegira begira esanez. Asmatutako izen bat erabilia kontatu nuen dena! Ez bazara ohartu ere, neu nintzen maitale leial hura. Eta gainera, askatasun handiagoarekin hitz egin ahal izateko, behin baino gehiagotan egin ditut mozkor plantak.

Oroitzen dut nola zure bularrak bistan gelditu ziren zure tunika hanpatu zenean, eta, biluzik, nire begiei dei egin zien; elur fina baino bular zuriagoak, esnea baino zuriagoak, Jupiter zure ama besarkatzean baino zuriagoak.²⁵ Ikuskizun horren aurrean liluraturik nengoela (edalontzi bat eskuetan nuelarik), heldulekuak ihes egin eta erori egin zitzaidan.

Zure alaba musukatzen zenuenean, nik, pozik, Hermioneren²⁶ aho samurretik jasotzen nituen muxu horiek. Batean, etzanda, aspaldiko maitasun kontuei kantatzen nien; bestean, ezkutuko zeinuak egiten nizekizun, keinuka; arestian zure neskalagun gertukoenengana, Klimene eta Etrarengana, hitz leunez hurreritzen ausartu naiz, eta hauek ere, beldur direla esanez, ez diete nire eskakizunei jaramonik egin.

Nahiago nuke jainkoek erabakiko balute zu lehiaketa handi bateko saria izango zarela, eta irabazleak bere ohean izango zaituela, Hipomenesek eskeneidea²⁷ lortu zuen moduan lasterketa irabazteagatik; Hipodamia frigiarraren magalera etorri zen moduan;²⁸ Deianira, Alzida bizkorrak zure besarkaden bila zebilela Akelooren adarra hautsi zuen moduan. Egoera horietan nire ausardia ere handiagoa izango zatekeen, eta jakingo zenukeen zeu zarela nire ausardiaren arrazoia.

²⁵ Jupiter zisne bilakatu zen Leda limurtzeko.

²⁶ Menelao eta Helenaren alaba.

²⁷ Atalanta, Eskeneoren alaba. Ezkondu nahi ez zuenez, berekin ezkondu nahi zuten gizonei esan zien lasterketa batean irabazi beharko ziela, korrikalari aparta baitzen.

²⁸ Peloperen magalera.

Eta orain ez zait besterik geratzen erregutzea baino, ene maite, eta, uzten badidazu, zure oinak besarkatzea. Oi, ohorea, oi, bikien loria bizia;²⁹ Jupiterrekin ezkontzeko modukoa zara, harengandik sortua ez bazina. Sigeako portuetara zu emazte zaitudala itzuli behar dut, edo hemen ehortzi beharko nauzue, Tenaroko lurretan.

Nire bihotza ez du arinki zauritu geziak; zauria hezurretaraino sartu zait. Nire arrebak iragarri zuen (orain datorkit burura) gezi zerutiar batek zeharkatuko ninduela. Ez ezazu mespretxatu jainkoek emandako maitasuna, Helena. Eta izan itzazu jainkoak zure aldeko!

Gauza asko datozkit burura, baina, aurrez aurre hitz egin dezagun, har nazazu zure ohean, gauaren isiltasunean. Edo lotsa ematen al dizu? Beldur al zara ezkontzako Venus laidotzeko eta ezkontzaren lege garbiak hausteko? Ai, sinpleegia zara, Helena, jainkojalea ez esatearren. Ez duzu ba pentsatuko halako aurpegi ederra hobenetik libratzen denik? Aurpegia aldatu beharko duzu edo gogor izateari utzi beharko diozu, ezinbestez.

Gatazka handia dago lotsaren eta edertasunaren artean. Jupiterrek ebasketa horiekin gozaten du; baita urrezko Venusek ere. Ebasketa horiek eman dizute Jupiter aitatzat. Jupiterren eta Ledaren alaba zaren horrek, ezin duzu garbia izan, haien maitasunaren hazian indarririk baldin bada. Hala ere, izan zaitez garbia ondoren, nire Troiak zaituenean eta ni naizenean zure hoben bakarra, arren. Egin dezagun bekatu orain, ezkontzen garenean konponduko dugu, Venusek ez baldin badit promesa okerrik egin behintzat.

Zure senarrak bultzatzen zaitu hau egitera, ez hitzez, baina bai bere ekintzekin, eta urrundu egin da bere apopiloaren ebasketak ez oztopatzeko. Itxuraz, ez zegoen momentu hoberik Kretako erreinuak bisitatzeko. Hori da hori gizon azkarra! Joan egin zen, eta joan aurretik honako hau esan zizun: “Emaztea, hauxe agintzen dizut: Idako apopiloa zaindu ezazu nire ordeztan”.

Salatu behar dut: ez zara ari zure senarraren aginduak betetzen; ez zara zure apopiloa zaintzen ari, inondik inora ere. Akaso, uste duzu sentimendurik gabeko gizon hark zure edertasuna behar bezala baloratuko duela, Tindaride horrek? Oker zaude; ez du ezagutzen. Jakingo balu

²⁹ Kastor eta Polux, Helenaren anaiak; heroi ezagunak ziren.

zer nolako altxorra duen alboan, ez lioke kanpotar bati utziko. Nahiz eta nire hitzek eta pasioak ez zaituzten hunkitu, aprobetxatu egin behar dugu eman digun aukera hau; bestela inozoak izango gara, hura baino inozoagoak, halako aukera bati ihes egiten uzten badiogu. Ia bere eskuekin bultatzen du maitalea zugana; probestu zaitez zutaz fidatzen den senarraren inozotasunaz.

Bakarrik zaude ohe bakarti horretan, hain gau luzeetan: ohe bakartian nago ni ere. Goza dezagun elkarrekin, zuk nirekin, nik zurekin; gau hori eguerdia baino distiratsuagoa izango da: orduan zin egingo dizut nahi duzun jainko guztiengatik, eta zuk aukeratutako hitzekin lotuko dugu gure maitasuna ezkontzaren bidez. Orduan, nik lortuko dut, ez banau nire konfiantzak engainatzen behintzat, biok elkarrekin egonik, zuk nire erreinuak desiratzea.

Jarraitu egin nauzulako itxura emateak lotsatzen eta beldurtzen bazaitu, ni neu izango naiz bidegabekeria honen errudun bakarra. Hain zuzen ere, Egeoren semeak³⁰ eta zure anaiek³¹ egin zutena egingo dut; ez dago gertuagoko adibiderik zu konbentzitzeko. Teseok bahitu zintuen zu; Leuziporen bi alabak zure anaiek, eta ni izango nahiz adibide hauetan laugarrena.

Troiarren ontziteria hemen da, armaz eta gizonez betea. Arraunek eta haize leunak bidaia bizkorra eskainiko digute. Dardaniako hirietatik erregina handiaren pare ibiliko zara, eta herriak jainkosa berri gisa gerturatu zarela pentsatuko du. Eta zure oinatzen bidetik sugarrek olibo-zumea erreko dute, eta immolatutako biktimak odoleztatutako lurra joko du. Nire aitak eta anaiek opariak eskainiko dizkizute, eta baita nire arrebek eta amak ere, eta Ilioko guztiek eta Troia osoak.

Ai ene, gertatuko denaren zati bat besterik ez dut aipatu. Nire gutunak dioena baino askoz gehiago izango duzu. Eta ez izan bahiketaren ondoren gerra lazgarriak etorriko direlako beldurrik, ezta Grezia handiak bere indarrak bilduko dituelako beldurrik ere. Aurrez ere hainbeste emakume izan dira bahituak; eta eskatu al dute inoiz armen bidez baten bat bueltatzeko? Sinetsidazu: alferrikakoak dira beldur horiek. Traziarrek Akilonen izenean

³⁰ Teseo; Helena bahitu zuen. Atenaseko erregea, Etra eta Egeoren semea.

³¹ Kastor eta Poliux, Leuciporen alabak bahitu zituzten, Hilaira eta Febe.

hartu zuten preso Erekteoren alaba³² eta Bistoniako kostak³³ ez zuen gerrarik jasan. Itsasontziz bidali zuen Pagaseko Jasonek Fasiseko emakumea,³⁴ baina Kolkosen armadak ez zuen Tesaliako lurren aurka egin. Teseok, zu bahitu zintuenak, bahitu zuen baita Minoidea³⁵ ere, baina Minosek ez zituen kretarrak aurkako inongo gerrara deitu. Kasu horietan handiagoa izan ohi da beldurra arriskua baino, eta beldur izatea gustatzen zaigun moduan, beldurtuak sentitzeak lotsatu egiten gaitu.

Imajina ezazu, nahi baduzu, gerra izugarri bat ari dela sortzen; badut nahikoa indar, eta gainera, nire armak arriskutsuak dira. Asiako balibideak ez dira zure herrikoak baino gutxiago. Gizon mordoa dago, eta baita zaldi mordoa ere. Eta Menelao atridak ez du Parisek baino ausardia handiagoa izango, eta armekin ere ez da lehenetsia izango.

Ia haur bat nintzelarik, ostu zizkiguten artaldeak berreskuratu nituen etsai batzuk akabatu ostean, eta hortik dator nire izena.³⁶ Ia haur bat nintzela, gazte batzuei irabazi nien borrokan; haien artean ziren Ilioneo³⁷ eta Deifobo.³⁸ Eta ez dezazun pentsa aurrez aurreko borrokan soilik naizela beldurgarria, esan behar dut nire gezia nahi dudan tokian sar dezakedala. Menelaok ez du halako ekintza gogoangarririk bere gazte garaietan. Ezin diozu atridari nire artea eman! Dena emango bazenio, akaso, emango al zenioke Hektor anai gisa? Bera bakarrik milaka eta milaka soldaduren pareko litzateke.

Ez dakizu zenbat balio dudan eta ez dakizu ongi nire indarraren berri: ez dakizu zer nolako gizonarekin ezkonduko zaren. Edo gerra matxinada batek ere ez du eskatuko zu itzultzeko, edo kanpamendu doriarrak amore emango du nire balentriaren aurrean.

³² Oritia bahitu zuten, Atenaseko errege Erekteoren alaba.

³³ Trazian zegoen Bistonia.

³⁴ Medea: Eetes, Kolkoseko erregearen alaba.

³⁵ Ariadna, Minos eta Pasifaderen (Kretako erregeak) alaba.

³⁶ Parisen ezizena *Aléxandros* zen, hau da, «gizonen zaintzailea» (artzainena).

³⁷ Troiako gerrako pertsonaia bat.

³⁸ Priamo eta Hekubaren semea, Paris hil ostean Helenarekin ezkondu zen.

Dena den, ez zait iraingarria irudituko ezpata hartzea halako emazte ederra lortzeko bada; halako sariak merezi du lehia. Zu ere ezaguna izango zara eternitate guztirako, zuregatik mundu osoan gerra pizten bada.

Beldurrik gabeko esperantzaz, eta jainkoak alde izanik, eska itzazu fideltasun osoz agindutako dohainak.

3.2 XVIII. Leandrok Herori

Abidoko mutilak bidaltzen dizu agurra, Sestoko neskatxa, eta nahiago luke aurrez aurre eraman ahalko balizu, itsasoa baretuko balitz.³⁹

Begi nahigabetuz irakurriko dituzu hitz hauek, jainkoak lagun badituz, eta maitasunean nire aldeko. Baina ez dituz lagun. Bestela, zergatik atzeratzen dituzte nire desirak? Eta zergatik ez didate uzten jada ezagun ditudan itsasoetan zehar ibiltzen? Zuk zeuk ikusten dituzu zerua bidea baino beltzago eta itsasoa haizeteek harrotuta, itsasontzi ahurrak hara ezin joateko moduan.

Itsasgizon bakarrak, hots, gutuna eman dizunak, hasi du bidea portutik, eta itsasgizon hura, gainera, ausartegia da.

Ni neu ere itsasoratuko nintzatekeen harekin, Abidoko hiritar guztiak begira izan ez banitu, txikota erriatzen ari zela. Ez nituen gurasoak engainatu nahi, orain arte bezala, eta gainera, isilpean gorde nahi dugun maitasun hau ez zatekeen hala mantenduko. Azkar batean, lerro hauek idazten ari nintzela, honako hau esan nuen: «hoa, gutun, zortez beterik! Hemendik gutxira bere esku eder hori luzatuko du zugana; akaso, igurtzi egingo zaitu ezpainak gerturatzen dituelarik, zure lokarriak elurrezko hortzarekin hautsi nahi dituenean». Hitz horiek ahapeka esan ostean, gainontzeko guztia nire eskuin eskuak esan du gutunean. Ai, nahiago nuke nire esku horrek, idatzi baino, igeri egingo balu eta ezagun ditudan itsaso horietatik eramango banindu! Nire eskua, jakina, igeri egiteko gertuago baitago, baina nire sentimenduen zerbitzari ere bada.

Zazpigarren gaua iragan da itsasoa olatuARRANTATUEKIN irakiten dagoenetik, eta urtebete baino luzeagoa egin zait denbora guzti hori. Gau horietan bihotzak lasaitzen dituen ametsa ikusi ahal izan badut, izan dadila amaitezina itsaso zakar hau. Haitz batean eserita zure hondartzei so egon ohi naiz triste, eta gorputza eraman ezin dudana toki hartara eramaten nau

³⁹ Abidoko mutikoa, Leandro; Sestoko neska gaztea, Hero.

gogoak. Nire begiradak dorrean piztuta dauden argiak ikustea ere lortu du, edo hala iruditu zaio.⁴⁰

Hiru bider utzi nituen arropak hondar lehorrean, eta hiru bider saiatu nintzen biluzik itsas-zeharkaldi arriskutsua egiten. Harrotutako itsasoak nire gazte-saiakerei kontra egin zien eta bere ur nahasiek nire aurpegia urperatu zuten igerian nindoala.

Eta zuk, haizete bizkorren artean basatienak, zergatik hasi duzu nire aurkako gudu hau halako garrarekin? Ez baldin badakizu, Boreas, nire aurka ari zara, eta ez itsasoaren aurka. Zer egingo zenuke maitasuna ezagutuko ez bazenu? Orain hain hotza bazara ere, akaso gezurta al dezakezu bere garaian erre zinela Akteko baten suan?⁴¹ Gozamina lapurtzera zoazela norbaitek haizeetako bideak itxiko balizkizu, nola jasango zenuke hori? Izan zaitez erruki, arren eskatzen dizut, eta aldeko haize leuna mugiaraz ezazu, mesedez. Hori egiten baduzu, ez diezazula Hipotadak⁴² ezer txarrik bidali.

Gauza hutsalak eskatzen ditut, eta berak ere marmar egiten du nire eskakizunen aurka, ez baitu inon itsaso harrotua baretzen. Ai, kosta ikariarra gertu badut ere, nahiago nuke oraintxe bertan Dedalok hego ausart horiek emango balizkit! Edozer gauza gertatuta ere, dena jasango nuke, garai batean ur arriskutsuetan izan nuen gorputz hau aireratu ahal izatearen truke. Baina haizeak eta itsasoak nire ametsa ukatzen didaten artean, ezkutuko maitasun horren hasierako garaiak gogoratzen ditut nire baitan.

Iluntzen ari zuen (plazer bat da hori gogora ekartzea) aitaren etxetik maiteminduta atera nintzenean; gehiegi luzatu gabe, arropa eta, aldi berean, beldurrak kenduz, nire beso malguak uretaratu nituen. Ilargiak argi dardarti bat besterik ez zidan eskaini bidelaguntzat. Burua harenganantz altxatu eta honako hau esan nion: «Babes nazazu, jainkosa dirdiratsu horrek, eta hurbil daitezela zugana Latmosko haitzak.⁴³ Endimionek ez du onartzen zure bihotza krudela izatea; arren eskatzen dizut berriz ere zure begiak nire maitasun ezkutuan paratzeko. Zu, ene jainkosa, hilkor baten bila jaitsi zinen zerutik; ni ere jainkosa baten bila nabil. Haren

⁴⁰ Leandro dorrerantz gidatzeko Herok pizten dituen argiak.

⁴¹ Akte edo Atikako erregearen alabetako bat, Oritia. Boreasek, ipar haizeak, maitatu eta bahitu zuen.

⁴² Eolo; Hipotesen semea.

⁴³ Ilargiak Endimion maitemindu zuen mendia.

izaeraz hitzik ez egiteko, nahiz eta jainkosa batenaren neurrikoa den, aitortu behar dut haren edertasuna jainkosenaren parekoa dela. Venusen eta zure aurpegien ondoren, ez dago hura baino ederragorik; eta nire hitzez soilik fidatu beharrik ez izateko, ikus ezazu zuk zeuk! Zure zilar koloreko izpiekin dir-dir egiten duzunean eta gainontzeko izar guztiak zure dirdiraren aurrean makurtzen direnean ere, ederrenetan ederrena izaten jarraitzen du; eta ez baduzu sinesten, Zintia,⁴⁴ itsu zaudelako da».

Hori esan nuen, edo antzeko zerbait, gauez, nire inpultsuen aurrean baretzen diren olatuen artetik nindoala. Itsasoak distira egiten zuen ilargiaren islaren ondorioz; egunaren argitasuna zegoen gau isilean. Ez zen ahotsik entzuten, ezta murmuriorik ere, nire gorputza zeharkatzen zuen uraren soinua besterik ez zen entzuten. Antxetak⁴⁵ soilik entzutea iruditu zitzaidan, Zeix maitea ahazten ez duten bakarrak, kexa gozoren bat ahoskatzen zuten bitartean. Eta, sorbalden azpian nekaturik ditudan besoekin, esfortzu handia eginez, olatu altuen artean altxatu naiz. Urrutira argia ikusi nuenean, honako hau esan nuen: «nire sua harengan dago; itsasertz horiek dute nire argia». Eta bat-batean, indarra itzuli zen nire beso nekatuetara, eta itsasoa lehen baino otzanagoa iruditu zitzaidan. Nire bihotz kartsuan sutan dagoen maitasunak amildegi izoztuaren hotza sentitzea ekiditen du. Zenbat eta gehiago gerturaten naizen eta zenbat eta gertuago dudan itsasertza, eta iristeko zenbat eta gutxiago geratu, are eta plazer handiagoa sentitzen dut aurrera egitean. Eta ikusi ere egin ahal nauzunean, nire indarra handiagotzen duzu begiratzen nauzunean eta berriz ere ongi sentiarazten nauzu. Une horretan nire ugazabandreatzat atsegin izaten saiatzen naiz, baita igeri egitean ere, eta zure begietara zuzentzen ditut nire besoak. Zure hazamak ezin du eragotzi zu itsasora jaistea (ikus egin bainuen, eta ezin ninduzun engainatu). Eta ez zuen eragotzi, ezta, nahiz eta zure ihesa atxikitzen saiatu zen, zure hanka aurrenengo olatuekin bustitzea. Besarkada batekin egin didazu harrera, eta muxu txit atsegingarriak eman dizkidazu; itsasoetatik haratago bilatzea merezi duten muxuak, oi, jainko boteretsuak. Eta zure sorbaldetatik kendu duzun oihala eskaini didazu eta kresalez blai dudan ilea lehortu didazu.

⁴⁴ Zintia; Ilargia.

⁴⁵ Latinezko *Alcyones solaetik*, Alzione, Eoloren alaba eta Kanazeren ahizpa, Zeixekin ezkondu zen; bere senarra galdu zuela jakitean bere burua itsasora bota zuen. Jupiterrek, errukituta, hegazti bihurtzen utzi zion.

Gainontzeko guztia gauak, guk geuk eta dorreak, gure konplizeak, soilik dakigu, eta baita itsasoan zehar bidea erakusten zidan argi-zuziak ere. Eta zailago da gau hartako gozamenak kontatzea itsaso helespontiakoko algak kontatzea baino. Zenbat eta toki gutxiago ematen ziguten elkar maitatzeko, orduan eta gehiago saiatzen ginen minutu bat ere alferrik ez galtzen. Eta Titonoren emaztea jada prest zegoela gaua ihesean jartzeko, Luzifero altxatu zen, Auroraren aitzindaria. Muxuak pilatzen ditugu eragabean atzematen ditugularik, eta gauek hain gutxi irauteaz kexatzen gara. Eta horrela luzatzen naizelarik, hazamaren abisu mingotsak itsasertz hotzera itzularazi nau, dorrea utzita.

Negarrez banantzen gara eta birjinaren⁴⁶ itsasora itzultzen naiz, ahal dudan artean nire ugazabandreairengana zuzentzen ditudala begiak, gelditu gabe. Egia sinetsi nahi baduzu, harantz nindoala igerilaritzat nuen nire burua, eta itzultzean, aldiz, naufragotzat. Sinetsiezadazu honako hau ere: zukanako bidean bideak aldapan behera dirudi, baina itzulerako bidean, ur mugiezinezko mendi bat. Gogo txarrez itzultzen naiz sorterrira (nork sinetsiko luke hori?); hala da, gogo txarrez bizi naiz orain nire herrian.

Ai, gaixoa ni!⁴⁷ Zergatik banatzen ditu itsasoak gure bihotz elkartuak? Eta zergatik ez ditu hartzen lur-zati batek sentimendu bakar diren bi horiek? Har nazala ni zure Sestok, edo har zaitzala zu nire Abidok. Zuri nire herria bezainbeste gustatzen zait niri zurea. Zergatik asaldatzen naiz itsasoa asaldatzen den bakoitzean? Zergatik du haizeak, halako gauza arinak, nire aurka jartzeko gaitasuna? Izurde makurtuek gure maitasuna ezagutzen dute, eta ez dut uste arraintzat ezezagun naizenik. Jada higatua ikusten da sarri ibilitako uren bidea, hainbat gurpilek zapaldutako bide baten moduan. Lehen itsasoaz gain beste biderik ez edukitzeaz nintzen kexu, baina orain haizearen erruz bide hori bera ere ez izateaz kexatzen naiz. Atamantidearen⁴⁸ urak olatu ikaragarriekin zuritzen dira, eta itsasontzia ez dago portuan seguru. Itsaso hau hala egongo zela pentsatzen dut deitura hori jaso zuenean, birjina bertan ito zenean. Toki hau aski doilorra da Heleren heriotza dela eta; niri bizia barkatu didan arren, bere gain du krimena. Inbidia diot Frixori, urrezko ardiaren bizkarrean zeharkatu baitzituen

⁴⁶ Hele: Atamante eta Nefeleren alaba, Frixoren arreba.

⁴⁷ Atzera begiratze nostalgikoaren amaiera, poemak bere egoeraren aurkako kexekin jarraitzen du.

⁴⁸ Hele, cf. 46. ohaG

zoritxarreko ur hauek, bere ardi-larruaren gainean. Eta, hala ere, ez dut inolako ahari edo itsasontziren laguntzarik nahi, nire gorputzak ebaki ditzakeen urak ematen bazaizkit. Ez dut tresnarik behar, igeri egiteko aukera besterik ez dut behar; itsasontzi, itsasgizon eta pilotu izango naiz.

Ez diot Helizeri⁴⁹ jarraituko, ezta Arktosi⁵⁰ ere, Tiroko itsasgizonak egin ohi duen moduan⁵¹; nire maitasunak ez die jaramon egiten konstelazio arruntei. Beste batek begira diezaiela Andromeda eta Korona distiratsuari, eta Parrasiako Hartzari, zeinak polo hotzean distiratzen baitu. Nik behintzat ez dut nahi Pertseo, Liber eta Jupiterrek maitatu zuten hori izatea nire bide arriskutsua seinalatzen duena. Bada beste argi bat, niretzat askoz seguruagoa den argi bat, zeinaren laguntzaz nire maitasuna ez den ilunpean egongo. Nire aurrean dudan artean, Kolkidera eta Pontoren mugara ere joaten ausartuko nintzateke, baita Tesaliako pinuak⁵² nabigatu zuen tokietatik ere. Modu horretan, Palemon gazteari aurre hartuko nioke igerian, eta landare magiko batek bat-batean jainko bihurtu zuenari. Sarritan, nire besoak nekatu egiten dira mugimendu errepikakorren ondorioz, eta itsaso zabalean besakadak emateari uzten diote, baina bat-batean indarra berreskuratzen dute, honako hau esaten diedanean: «ez da doilorra esfortzuaren saria; nire maitearen lepoa besarkatzeko aukera erregalatuko dizuet», eta zaldi bizkorrak zirko Eleako karioletatik⁵³ korrika ateratzen diren moduan hasten dira ziztu bizian igerian. Horrela ikusten dut erretzen nauen maitasuna, eta zuri, zerutiarra dirudizun horri, jarraitzen dizut. Zerutiarra dirudizu, baina gera zaitez oraindik lurrean, edo esadazu nondik igo naitekeen jainkoengana. Oraindik hemen zaude, eta gutxitan zaude, halere, zure maitale gaixoaren alboan, eta itsasoa eta nire burua nahastuta daude. Zertarako dut itsaso zabalak gu ez banatzea? Kalte gutxiago egiten al dit hain ur-zailtxikiak gu banatzeak? Ez dakit ez ote nukeen nahiago unibertsoak bananduko bagintu, eta nire ugazabandrea eta nire esperantzak biak berdin-berdin urrun izango banitu. Orain, zenbat eta gertuago zauden, gertuagoko sugarrak erretzen nau; eta kausa ez dago beti presente, baina

⁴⁹ Hartz Handia

⁵⁰ Hartz Txikia

⁵¹ Esan izan da Hartz Handiak gidatzen zituela tiriarrak.

⁵² Argo itsasontzia

⁵³ Hipikan erabiltzen diren *boxak*, kaiola formakoak.

hala dago esperantza. Ia-ia eskuarekin ukitzen dut maite dudana (hain gertu gaude!), baina, ai, «ia-ia» horrek sarritan malkoak eragiten dizkit. Zer ezberdintasun dago fruitu iheskariak heldu nahiaren eta bere ahotik ihes dabilen korronte baten esperantza jarraitzearen artean?

Beraz, ez al zaitut inoiz nirea izango, ez bada olatuek nahi dutelako? Neguak ez nau inoiz pozik ikusiko, eta haizea eta ura baino ezer ezegonkorragorik ez bada ere, haizearengan eta itsasoarengan egongo al da nire esperantza? Hala ere, oraindik udara da; zer gertatuko da Pleiadeak, Artofilak eta Olenoko ahuntzak itsasoa astintzen didatenean?⁵⁴ Ez dakit zenbateraino ausartegia naizen, edo maitasun ez-zuhur honek itsasoetara bidaliko nauen. Ez pentsa epe luzerako promesak egiten dizkizudanik; ez dut denbora asko beharko zin egindakoaren probak emateko. Segi dezala itsasoak haserre egoten beste pare bat gau; ur gorrotagarri horiek zeharkatzen saiatuko naiz. Edo, behin salbu naizela, ausardia horrek arrakasta ekarriko dit, edo heriotza izango da maitasun nahigabetu honen amaiera. Dena den, itsasertz horietara jaurti nazaten desiratuko dut, eta zure portuak eduki ditzala nire gorputz-atal naufragoak. Negar egingo duzu, eta nire gorpuak zure laztanak merezi dituela usteko duzu eta honakoa esango duzu: «ni izan naiz zure heriotzaren errudun». Badakit gogaitu egiten zaituela nire heriotzaren iragarpenak, eta atal honetan nire gutuna gorrotagarri egin zaizula.

Amaitzen ari naiz; utziozu negar egiteari. Baina erregutzen dizut zure eskariak nire eskariei batzeko, itsasoak haserrealdia alde batera utz dezan. Barealdi labur bat behar dut horra iristeko. Zure itsasertzera iristean jarrai dezala enbatak. Bada bertan nire itsasontzira egokitzen den ontzitegi bat, eta inon baino hobeto mantentzen da nire popa ur hauetan.⁵⁵ Giltzaperatu nazala bertan Boreasek, bizitzea ederra den toki hartan; orduan nagi izango naiz igeri egiteko, zuhurra izango naiz, eta ez diet ezer aurpegiratuko olatu gorrei, eta ez naiz kexatuko itsasoa zorigaiztoko delako igeri egin behar duenarentzat. Haizeek eta zure besoen goxotasunak gorde nazatela aldi berean, eta bi arrazoirengatik lotu nazatela bertan.

⁵⁴ Hau da, udara amaitzean.

⁵⁵ Ontzia Leandroren gorputza da.

Enbatak lagatzen didanean, nire gorputzaren arraunak erabiliko ditut. Zuk izan ezazu beti begi-bistan eta piztuta lastargia.

Bitartean, nire ordeztan, nire gutunak pasa dezala gaua zure ondoan eta erregutzen dut bere pausuak jarraitzeko aukera izan dezadala ahalik eta lasterren.

3.3. XIX. Herok Leandrori

Zatoz, Leandro, zure hitzekin opa zenidan osasuna benetan izan dezadan. Nire plazerrak atzeratzen dituen itxaronaldi oro iruditzen zait luzeegia; barkaidazu aitormen hau: ezin izan ohi dut itxaron, norbait maite dudanean. Antzeko suarekin erretzen gara, baina indarrari dagokionez ez naiz zu bezalako; iruditzen zait gizonak indartsuagoak zaretela, eta dontzeila goxoek, aldiz, gorputz ahulagoa eta burua ere halakoxea dugu. Pittin bat gehiago atzeratzen bazara, hil egingo nahiz.

Zuek, bai ehizan, bai gozabide duzuen lurra landatzen, denbora asko pasatzen duzue okupatuta; edo foroan egoten zarete, edo guda-toki distiratsuak lapurtzen dizuete denbora; edo zaldi lasaiaren iduna makurrazten duzue bridaren bidez, edo txoriak ehizatzen dituzue lazoa erabilita, edo arrainak amuarekin. Berehala pasatzen dira arratsaldeko orduak behin ardoa zerbitzatu dutenean.

Nik, ezin dezakedanez hori guztia egin eta su ahulago batek erretzen banau ere, maitatu besterik ezin dezaket egin. Ahal dudana egiten dut, eta zu, nire plazer bakarra, inork sinets diezadakeena baino gehiago maitatzen zaitut. Edo nire hazamarekin zuri buruz txutxumutxuka jardun eta zure atzerapenaren berri galdetzen diot, edo itsasoari begira jarrita ur harrotuen aurka egiten dut zure hitzak erabiliz, edo, olatu arriskutsuak apur bat baretzen direnean, kexatzen nahiz esanez ez duzula etorri nahi, etorri ahal zaren arren; eta kexatzen naizen artean, nire begi maiteminduei malkoak darizkie eta nire atsotxo gogaideak hatz potoloarekin lehortzen dizkit.

Sarri begiratzen dut ea itsasertzean zure pausuak ikus daitezkeen, hondarrak oinatzak gordeko balitu bezala. Eta zutaz galdetzeko edo zuri idazteko, begiratzen dut ea inor Abidotik etorri den edo badoan bertara. Zertarako aipatuko dut zenbat muxu ematen dizkiedan zure arropei, itsaso helespontiakoan zehar joateko erazten dituzunean!

Modu horretan, argia joan delarik eta gaueko ordu atseginenak⁵⁶ bere izar distiratsuenak erakutsi ditunean, eguna joanarazi denean, dorrearen gorenean pizten dut lastargi zaindaria,

⁵⁶ Leandroekin batu ohi zen ordua.

jada ezaguna duzun bidearen seinale eta erakusle, eta hari bihurrietatik tiraz, ardatza biratuz, neskaxon zereginekin engainatzen dut itxaronaldi luze hau.

Galdetuko duzu ea zertaz jarduten dudan hainbeste denboraz. Nire ahotik ez da besterik irteten Leandro izena baino; «Ene hazama, uste al duzu jada irten dela etxetik nire poztasuna dakarren hura? Edo denak esna egongo dira eta haien beldur izango da? Uste al duzu kendu dituela soinetik arropak eta haren gorputza Palas ⁵⁷lodiz igurzten ari dela?» Baietz dio, ez nire maite-kontuek arduratzen dutelako, baizik eta logurak, guztiz ustekabean hartzen duelarik, haren buru zaharkitua mugitzen diolako. Eta geldialdi txiki baten ostean honako hau diot: «jada, zalantzarik gabe, nabigatzen ariko da, eta bere beso indartsu eta zaluak ura zeharkatzeko luzatzen ariko da».

Eta harizpi apur batzuk amaitu eta bilbea txarrantxatu dudanean, galdetzen diot nire buruari ea itsas erdian egongo zaren, eta batean urrutira begiratzen dut, eta bestean ahots lotsatiz erregutzen dut aldeko haize leunek bidea erraz diezazuten. Zenbaitetan nire belarriek ahotsak entzuten dituzte, eta zure etorreraren soinua direla iruditzen zaizkit hotsak oro. Modu horretan, gauaren zati handi bat arintzea lortu dudanean, ezkutuan iristen da logalea nire begi nekatuetara. Akaso zure nahiaren kontra egiten duzu lo nirekin, zital horrek, eta zeuk etorri nahi ez baduzu ere, hala egin ohi duzu.

Iruditzen baitzait gertu ikusten zaitudala igerian; batean, zure beso umelak nire sorbaldei eskaintzen dizkiezula; bestean, ohi dudan moduan, oihala zure gorputz bustiari ematen diodala; hurrengoan, nire bularraldea berotzen duzula; eta mihi apal honek isilpean gorde behar dituen beste hainbeste gauza, gustura asko egiten ditugun arren horiei buruz mintzatzeak lotsarazi egiten baikaitu.

Zoritxarrekoa ni, plazer hori laburra baita eta, gainera, ez benetakoa. Hain zuzen ere, loak ihes egiten didan unean, zuk ere ihes egiten duzu. Oi, izan dadila maitale kartsu hauen batasuna sendoagoa, arren, eta gure gozamenek ez dezatela benetakotasun faltarik izan!

⁵⁷ Olio. Palas jainkosak eman zion olibondoa Atenasi.

Zergatik igaro ote ditut nik hainbeste gau huts, zure berorik gabe? Zergatik zaitut urrun hain denbora luzez, ene igerilari makala? Onartzen dut: itsasoa ez dago igerian zeharkatzeko moduan, baina atzo gauean haizea leunagoa zen. Zergatik galdu zenuen aukera? Gertatuko ez zenaren beldur zinelako? Zergatik galdu zen halako bide onaren aukera, eta zergatik ez zinen prestatu berehala etortzeko? Halako beste aukera on bat izango bazenu ere, atzokoa beti hobea, lehenengoa izan zelako. Baina itsasoa berehala aldatu eta asaldatu zen; halere, bizkor zabiltzanean, sarritan arinago etortzen zara.⁵⁸

Pentsatzen dut hemen harrapatu bazintu ez zenukeela zertaz kexatu izango, eta, nirekin besarkaturik, ez zela izango min egingo zizun itsas-enbatarik. Zalantzarik gabe, orduan poz handiz entzungo nukeen haizearen ulua, eta erregutuko nukeen urak ez zitezen baretu. Zer gertatu da, ba, itsasoaren beldurra eta lehen gutxiesten zenuen itsasarte horrenganako larderia izan dezazun orain?

Ongi oroitzen dut, itsasoaren ankerkeria eta mehatxua ez zirenean orain baino apalago, edo ez bahintzat askoz apalago, honako hau oihukatzen nizula: «arriska zaitez, baina errukarri honek ez dezadala zure balentriagatik negar egin beharrik izan». Nondik datorkizu beldur berri hori, eta non galdu da zure ausardia hura? Non gelditu da itsasoari barre egiten zion igerilari bikain hura?

Dena dela, nahiago dut orain zaren modukoa izatea, lehen zinen modukoa baino, eta bidaldi lasai eta segurua egitea itsasoan zehar. Itsasoak hala jarraitzen duen artean, maite nazazu gutunean diozun moduan, eta ez ezazu utzi gure sugarra errauts hotz bihurtzen.

Nire desirak atzeratzen dituzten haizeteek baino gehiago izutzen nau zure maitasuna haizea bezala urruntzeak, eta jada ez duela merezi pentsatzeak, eta arriskuek sorburua⁵⁹ gainditzea, eta esfortzuekin alderatuta saria nahikoa ez dela iruditzea.

⁵⁸ Itsasoa harrotu egin bada ere, Leandrok zeharkatzeko behar zuen denbora baino gehiago egon zen bare. Modu horretan Herok Leandrok jar zezakeen edozein aitzakia deuseztatzen du.

⁵⁹ Heroren bila doa, beraz hura da sorburua.

Aldian-aldian, beldur naiz nire herriak kalte egingo ote didan, eta izutu egiten nau pentsatu ahal izateak Traziako neskatxa bat⁶⁰ ez dela nor Abidoko gizon batekin ezkontzeko. halere, pazientzia gehiagorekin jasan dezaket hori, aurkariren batek zu harrapatuta edukitzea eta beste emakume baten besoetan egotea baino, edo beste maitasun batek ekartzea gure maitasunaren amaiera. Ai ene! Halako laidoak ni zauritzea baino, nahiago nuke lehenago hiltzea eta nire patua zure akatsa baino lehen iristea.

Eta ez diot hori etorkizunean saminduko nauzulako zantzurik erakusten didazulako, eta ezta azkenaldiko zurrumurruren batek larritzen nauelako ere. Baina denari diot beldur. Nork maitatu du inoiz lasai? Lekuak⁶¹ behartzen du ez daudenei beldur gehiago izatera. Zorionekoak bertan izanik benetakoa ezagutzera beharturik diren neskatoak, asmatutakoen beldur izatea debekaturik dutenak. Laido hutsalek hunkitzen naute, eta benetakoek atzipetzen; eta bi akatsek eragiten didate antzeko oinazea.

Ai, nahiago nuke zu etortzea, edo haizea edo zure aita izatea zu berandutzearen arrazoia, eta ez inongo emakumea. Emakumeren batez zerbait entzuten badut, saminez hilko bainaiz, sinetsidazu. Nire heriotza nahi baduzu, egizu akatsa ahalik eta bizkorren. Baina ez duzu hori egingo, eta ni alfer-alferrik ari naiz sufritzen, eta enbata etsaia da zu ez etortzearekin tematzen dena.

Zoritxarrekoa ni! Zelako olatuak ari diren itsasertza astintzen, eta nola ezkutatzen den eguna laino ilunaren atzean! Beharbada, Heleren ama errukiorra⁶² Pontora etorri da, eta euri-ura negarrez ari da alaba bertan hondoratua duelako. Edo beharbada, amaordeak, itsasoko jainkosa bihurtuta, bere alabaordearen izen higuingarriaz ezagutzen den itsasoa astintzen du? Orain dagoen moduan leku hau ez da ona dontzeila atseginentzat. Ur hauetan hil zen Hele; ur hauetan sufritzen dut nik.

Baina haizeak ez luke zure maitasunik oztopatu beharko, Neptuno, ez baitituzu ahazten zure sugarrak (Amimone eta Tiro,⁶³ bere edertasunak hain ezagun egiten duena, ez badira delitu

⁶⁰ Hero.

⁶¹ Distantziak.

⁶² Herok iradokitzen du Nefele, Hele eta Frixoren ama, izan daitekeela itsas-enbata eragin duena.

⁶³ Poseidon eta Neptunoren maitasunen zerrendaketa. Amimone, Danaoren alaba, maite zuen Neptunok.

faltsuen zurrumurru hutsalak; eta berdin Altzione distiratsua, eta Kalize, eta Aveonen alaba, eta Medusa, bere ilea oraindik sugeek lotzen ez zutenean, eta Laodize ilehoria, eta Zeleno, zeruan hartu zutena, eta beren izenak irakurri ditudalako gogoratzen ditudan besteak, hainbat poetak kantatzen baitituzte kontu horiek, Neptuno, nola beren gorputz leunak zure gorputzarekin lotu zituzten).

Orduan, zergatik ixten diguzu zurrunbiloekin gure ohiko bidea, maitasunaren indarra zeuk ere hainbeste bider sentitu duzun arren? Errukitu zaitez, krudel hori, eta borrokatu ezazu itsaso zabalean. Ur-eremu estu honek bi lur banatzen ditu. Zuri, handia zaren horri, hobeto doakizu itsasontzi handien aurka egitea, edo are ontzidi osoei aurre egitea; igerilari gazte bat beldurtzea ez da itsasoko jainkoarentzat ohoragarri; hori urmaeleko edozein jainkoren pareko loria erdeinagarria da. Izatez noblea eta leinu entzutetsukoa da, baina ez da Ulises gorrotagarriaren jatorrikoa. Emaiozu zure baimena eta salba itzazu biak; hura da igeri egiten duena, baina nire esperantza, Leandroren gorputza, ur hauen menpe dago.

Eta argiak zirtaka egin zuen⁶⁴ (argia piztuta idazten baitut); zirtakatu egin zuen, eta augurio ona eman zidan. Eta orain nire hazamak ardoa botatzen du zorioneko suan,⁶⁵ eta «bihar gehiago izango gara» dio, eta trago bat hartzen du. Egizu gehiago izatea, itsaso garaituak igaroz, ai, zu, nire bihotzaren barrenenean hartu zaitudan hori. Itzul zaitez zure kanpamendura, Maitasun alaituaren iheslari hori. Zergatik hartzen du atsedean nire gorputzak ohearen erdi-erdian?⁶⁶ Ez dago zertaz izu izan; Venusek berak zure ausardiaren alde egingo du, eta itsasotik jaioa denez, bertako bideak leunduko dizkizu.

Sarritan atsegin izaten dut uren erditik joatea; baina itsaso hau seguruagoa izan ohi da gizonezkoentzat. Bestela, bertatik Frixo eta Frixoren arreba joan baziren, zergatik emakumeak soilik eman zion izena itsaso zabal horri?⁶⁷ Beharbada itzultzeko aukerarik ez izateko beldur zara, edo ahalegin bikoitzaren pisua jasan ezin izatearen beldur: beraz, gu biok, aurrez-aurre gaudenez, batu gaitezen itsasoaren erdian eta musu eman dezagun han, eta

⁶⁴ Argi-armiarmak zirtaka egitea augurio ona zen.

⁶⁵ Ez dakigu, argi gehiago izateko egin zuen edo zirtak eragindako poztasunaren isurpen gisa.

⁶⁶ Bakarrik dagoelako, bere maitalea Gabe.

⁶⁷ Bertan hil zen Hele, eta itsasoak horregatik du izen hori.

ondoren, itzul dadila bakoitza bere hirira. Gutxi izango da, baina ezer ez baino gehiago behintzat.

Oxala ezkutuan maitatzera behartzen gaituen lotsa hori edo zabaldua izateko beldur den maitasuna baretuko balira. Orain, pasioa eta zuhertasuna (elkarrekin ondo ez datozenak) borrokan daude: ez dakit ondo zeri jarraitu behar diodan; hau komeni zait, baina hura gustatzen zait.

Behin, Jason pagasiarra Kolkosen sartu zenean, popa bizkorrean eraman zuen fasidea; beste behin, Idako ezkontza-nahaslea Lazedomiara etorri zenean, berehala itzuli zen harrapakina hartuta; zuk, ordea, maite duzuna bilatzen duzun bakoitzean, utzi egiten duzu; eta itsasontziz etortzea ere zaila denean, igeri egiten duzu. Baina hala ere, ene gazte, ur harrotuen garaile hori, saia zaitez itsasoa gutxiesten, haren beldurra izan dezazun. Itsasoak arte handiz egindako itsasontziak irensten ditu. Ez duzu ba usteko zure besoek arraunek baino gehiago egin dezaketarik? Zuk egin nahi izaten duzuna egin beharraren beldur dira marinelak, Leandro: igeri egiteko beldur; naufragiotik salbatzeko egin behar izaten dutena baita.

Gaixoa ni! Espero dut ez konbentzitzea aholkatzen dizudana egiteko, eta nire abisuak baino gogorragoa izatea zu, hona irits zaitezten eta nigana bil ditzazun itsasoak sarritan jipoitutako beso horiek.

Baina, zeru-koloreko olatuetara begiratzen dudan bakoitzean, ez-dakit-zer batek hartzen du nire bularraldea eta beldur-hotzez dardarka uzten du.

Eta oso nahastuta nago atzo gauean izan nuen amets bategatik, jada sakrifizioen bidez garbitu badut ere. Hain zuzen ere, egunsentia gerturatzean, lanpara itzaltzen ari zela, benetako ametsak izan ohi ditugun unean, logalearen herabe, behatzetatik irrist egin zidaten harizpiek, eta burkoan jarri nuen burua. Orduan iruditu zitzaidan izurde bat ikusi nuela guztiz argi, haizeteek harrotutako olatuen artean igerian; olatuek hondar bustira bota zuten, eta aldi berean utzi zuten, gaixo hura, olatuak eta bizitzak.

Honek esan nahi duenaren beldur naiz. Ez ezazu barrerik egin nire ametsaz, eta ez eskaini zure besoak itsasoari bare ez badago. Ez bazara zeure buruagatik arduratzen, arduratu zaitez behintzat maite duzun emakumeagatik, ez baita inoiz salbu egongo zu salbu ez zauden artean.

Dena dela, esperantza dago itsaso zatitu hau berriz ere baretuko dela; zeharkatu itzazu orduan, segurtasunez, bide lasaiak.

Bitartean, itsasarte ez dagoenez igerilarietarako moduan, gutun honek ez ditu dezala atzerapen gorrotagarria.

3.4 XX. Akonziok Zidiperi

[Har ezazu, Zidipe,⁶⁸ gutxiesten duzun Akonzioren izena, sagarrarekin engainatu zintuenarena.]

Ez izan beldurrik; hemen ez diozu zure maitaleari beste ezer zin egin behar izango. Ez da gutxi ezkon-hitza niri behin eman izana. Irakur ezazu gutuna amaiera arte, urrundu dadila horrela gorputz⁶⁹ horretatik makalaldia, haren mina nirea ere baita. Zergatik ageri zaizu lotsa begitartean? Susmatzen dut Dianaren tenpluan bezala gorritu direla zure masail inozoak.

Itun baten bidez promesturiko ezkontza eta fideltasuna ditut desira; ezer gaitzesgarririk ez. Zure esanetara dagoen senar moduan zaitut maite, eta ez adultero gisa. Komeni da zuk errepikatzea nik zuhaitzetik erauzitako fruituak zure esku garbietara eraman zituen hitzak. Konturatuko zara, neskata, nik jainkosak baino gehiago desio dudana agindu zenidala (gogora ezazu). Eta orain ere gauza beraren beldur naiz; baina hala ere, horrek berak indar zakarragoa hartu du eta atzerapenak sugarra bizitu du. Eta inoiz txiki izan ez zen maitasuna, orain handitu egin da, denbora horren guztiaren eta zuk niri emandako esperantzaren ondorioz.

Zuk eman zenidan esperantza; zure esku utzi dut nire desira; ezin duzu ukatu egin zenuela, jainkosa lekuko baita. Bertan izan zen, eta bertan izan zenez, zure hitzak entzun zituen, eta bere ilajea mugituz, esandakoa baieztatzen zuela zirudien.

Esan dezakezu nire amarruak engainatu zintuela, beti ere nire amarruaren arrazoia maitasuna zela esanez gero. Zer helburu izango zuen ba nire amarruak, ez bada zurekin batzea, bakarra zaren horrekin? Deitoratzen duzun horrek zugana entregatu nazake. Ez dira nire izaera ezta nire ohiturak ni hain zuhurra izatearen arrazoi; zeuk egiten nauzu artetsua, neskata, sinetsidazu. Zerbait egin badut, Maitasunak (hitzak osatzen trebeak) lotu zintuen estu-estu

⁶⁸ Akonzio Zeostarrak maite duen Naxoseko neskata. Delosen zegoelarik, Dianaraen altarearen aurrean, idazki bat zuen sagar bat bidali zion neskataxari, eta hori irakurtzean neskatak Akonziorekin ezkonduko dela hitz ematen du.

⁶⁹ Zin emandakoa ez betetzeagatik eta beste batekin ezkontzeko asmoa izateagatik Zidipe gaixotu egin zen, ezkontza ospatu behar duten bakoitzean gertatzen zizaion moduan.

nigana; hark esandako hitzekin lortu nuen ezkon-hitza, eta Maitasun legelariari esker izan nintzen zuhurra.

Eta orain berriz idazten dizut eta hitz hauekin arren eskatzen dizut; beste iruzur bat, eta baduzu zertaz deitoratu. Maite dudanari min egiten badiot, aitortzen dizut, beti egingo dizut min; bilatuko zaitut, nahiz eta zu ezkutatu; nik neuk bilatuko zaitut!

Batzuek ezpaten bidez bahitu zituzten gogoko zituzten emakumeak. Krimena izango al da zuhurtziaz zuri gutun bat idaztea? Lotu zaitzatela jainkoek kate askorekin, zure konpromisoa ez dadin inondik ere libre geratu.

Mila amarru geratzen zaizkit. Aldaparen hasiera ere nekagarria zait. Nire grinak ez dit uzten ezjakina izaten. Jar dadila zalantzan nik zu liluratu zaitzakedala; gatibu hartuko zaitut, ziur. Arrakasta jainkoengan dago; baina, hala ere, liluratu egingo zaitut. Zerbaiti ihes egiten badiozu, ez duzu lortuko Maitasunak jartzen dizkizun sare guztiei ihes egitea, uste dituzunak baino gehiago dira eta; amarruak ez badira nahiko, armetara joko dut, eta behin harrapatuta zaudela, irrikatzen zaituenaren altzoak hartuko zaitu. Ez dut, beste batzuek bezala, Parisen ekintza larderiitzen, ez eta senar izateko gizon gisa jokatu zuen beste inorena ere.

Nik ere bai... baina isildu egingo naiz. Ez dit axola heriotza bada bahiketa honen zigorra, zu ez izatea baino zigor txikiagoa da eta.

Edo ez zaitetz hain ederra izan: ia inor ez litzateke zure bila arituko. Zure aurpegiak ausarta izatera behartzen nau. Zeuk lortu duzu hori, eta zure begiek, izar distiratsuak haien aldean ezer ez direnek. Urre koloreko zure ileak eta marfilezko zure lepoak lortu dute hori; eta zure eskuek, nire lepoan biltzeko eskatzen ditudan horiek; eta zure graziak, eta zure aurpegierak (lotsatia baina ez jainkojalea), eta zure oinek, Tetisenekin besterik ezin daitezkeenak alderatu.

Gainontzeko dena laudatu ahalko banu zoriontsuagoa izango nintzateke: ez dut zalantzan jartzen obra osoa halako ederra izango dela. Ez da harritzekoa, halako edertasunak txundituta, nik zure hitzaren bermea nahi izatea.

Hitz batez, nire gatibu zaudela aitortzera behartuta zauden artean, izan zaitetz nire amarruen gatibu dagoen neskaxa bat. Zure arbuioa jasango dut; baina jaso dezadala saria hori

jasateagatik. Zergatik da hain krimen handitik urrun bere fruitua? Telamonek⁷⁰ Hesione⁷¹ hartu zuen gatibu, Akilesek Briseida⁷²; egia esan, batak eta besteak senar garaileari jarraitu zioten. Nahi beste salatu ahalko nauzu, eta nahi beste haserretu ahalko zara, haserreturikoaz goza dezakedan artean.

Nik, haserre hori eragiten duenak, arindu egingo dut; zu lasaitzeko aukera txiki bat bakarrik badut ere. Zure aurrean negarrez agertu behar badut ere, eta nire malkoei hitzak gehitu behar badizkiet ere, egingo dut, eta, zerbitzariak zartada latzaren beldur direnean egin ohi duten moduan, nire esku xumeak zure belaunetara eramango ditut.

Ez baldin badituzu ezagutzen zure eskubideak, deituidazu. Zergatik salatzen nauzu aurrean ez nagoelarik? Aginduidazu berehala etortzeko, ugazabandre on baten moduan. Haserre bizian ileak errotik erauzten badizkidazu ere, eta nire aurpegia zure hatzengatik ubeltzen bada ere, berdin dit, dena jasango dut; izango dudan beldur bakarra nire gorputzak esku hori mintzea izango da. Baina ez nazazu atxiki girgilu eta kateekin. Zuganako dudan maitasunarekin egongo naiz lotuta. Zure haserrea erabat eta nahi beste asebeste denean, zeuk esango didazu: «zelako pazientziarekin maitatzen nauen!». Dena jasaten dudala ikusten duzunean, zuk zeuk zure buruari honako hau esango diozu: «zerbitza nazala hain ondo zerbitzatzen duen honek!».

Orain, aurrean ez nagoela, erruztatu errukarria baino ez naiz, eta, nire kausa, hobeezina den arren, galduta dago, inork defendatzen ez duenez.

Har ezazu nire gutuna laido moduan, zuk nahi duzun moduan: nik bakarrik ematen dizkizut auhendatzeko arrazoiak; Deliarrek⁷³ ere ez zuen merezi nik engainatzea; niregatik ez baduzu emandako hitza bete nahi, egizu jainkosarengatik. Bertan zegoen, eta ikusi zuen nola zu, engainatuta, lotsagorritu egin zinen, eta oroimen oneko belarrian gorde zituen zure hitzak.

⁷⁰ Eako eta Endeisen semea; argonautetako bat zan zen.

⁷¹ Laomedonte Troiako erregearen alaba.

⁷² Troiako gerran Akilesek Briseida bahitu zuen, haren anaiak eta senarra gerran hil zirenean.

⁷³ Diana, Delos irlan jaiotakoa.

Nire augurioek ez dezatela funtsik izan: ez dago jainkosa hura baino ezer bortitzagorik, bere jainkotasuna iraintzen dutela ikustean (ez nuke halakorik nahi).

Kalidonen basurdea izango da lekukoa: hain zuzen ere, badakigu haren ekintza baino krudelagoa izan zela amak semeari egindakoa.⁷⁴ Lekukoa izango da, halaber, Akteon, behin batean harekin piztiak akabatzen zituztenek piztitzat jo zutena; eta ama harroa,⁷⁵ ustekabeen bere gorputzetik harria jaio zelarik, lur migdoniarrean negarrez dagoena.⁷⁶

Gaixoa ni! Zidipe, zuri egia esateko beldur naiz, ez baitut nahi zuk pentsatzea gezurra esaten dizudala nire kausa babesteko; baina hala ere, esan egin behar dizut: sinetsidazu, horregatik da hain zuzen ezkontza-egunean sarri gaixo egoten zarela ohean; hark⁷⁷ zaintzen zaitu, zinauslea ez zaitezten izan saiatzen da, eta zure fideltasuna salbatu nahi du, zu ere salbu egon zaitezten. Horregatik, hainbestetan, zinausle izan nahi duzun bakoitzean, indarrrik gabe geratzen zara.

Ez ezazu egin birjinak bere arku basatiak erabiltzea; hori gerta dadin uzten baduzu, goxoa ere izan daiteke. Erregutzen dizut: ez itzazu sukarrak gogor hartu zure gorputz-atal xamurrak; gorde ezazu edertasun hori, nik gozatu behar dut eta; gorde ezazu ni berotzeko sortu zen aurpegi eder hori; eta gorde ezazu, halaber, elur-zuriko masail horietan ezkututzen den lotsak sortutako gorritasun goxoa. Etsairen batek zu nire izatearen aurka egiten badu, sufritu dezala zu gaizki zaudenean nik sufritzen dudan moduan.

Berdin-berdin oinazetuko naiz norbaitekin ezkontzen bazara edo gaixotzen bazara, eta ez dakit zein nahiko nukeen gutxiago. Askotan txikitu egiten nau ni izateak zure sufrimenduaren arrazoia, eta pentsatzen dut nire zuhurtasunak min egiten dizula.

Eta erregutzen dut nire aurka izan daitezela nire ugazabandrearen zinausteak; egon dadila hura salbu, nire zigorrari esker.

⁷⁴ Altea, Meleagroren ama, izan zen bere semearen heriotzaren errudun.

⁷⁵ Niobe.

⁷⁶ Frigia.

⁷⁷ Diana jainkosak.

Dena den, sarri, zure aterantz ibiltzen naiz, alderrai, arduraz eta disimuluz, zertan zabiltzan jakiteko. Zerbitzari eta mirabeen atzetik joan ohi naiz, ezkutuan arakutzen ea loak edo janariak ongi egin dizun. Gaixoa ni, ezin baitizut eman medikuek bidaltzen dizutena, eta ezin baititut ez zure eskuak laztandu, eta ezta zure ohean jesarri ere.

Eta are eta zorigaiztokoagoa naiz, hortik urrun nagoenean, beharbada, nahi ez nukeenen bat egongo baita zure alboan. Esku horiek laztantzen ditu, eta neska gaixoa zaintzen du; gorrotagarria da jainkoentzat eta, jainkoekin batera, baita niretzat ere. Eta taupaka ari den zain bat ukitzen duenean behatzekin, aitzakia horrekin, sarri, zure beso zuriak hartzen ditu, eta zure bularraldea laztantzen du, eta beharbada, elkar musukatzen duzue; sari hori bere zerbitzuak baino baliotsuagoa da.

Nork eman dizu baimena nire uzta jasotzeko? Nork bideratu zintuen beste baten esparrura? Bularralde hori nirea da; nire musuak lapurtzen dituzu, baldarki. Ken itzazu eskuak nirea izango zela promestu zidaten gorputz horretatik. Zital horrek, kendu esku horiek. Ukitzen duzun emakume horrek nirea izan behar du. Zeurearekin tematuta jarraitzen baduzu, adulteroa izango zara. Aukera ezazu libre daudenen artean bat, eta ez beste batek berea dela aldarrikatzen duen bat; ez baldin badakizu, horrek badu bere jabea.

Ez zaitetz nire hitzaz fida; erreziata dezagun akordioaren formula; eta ez dezazun faltsua denik esan, irakur dezala hark. Irten zaitetz beste baten logelatik (zeuri, zeuri ari natzaizu esaten). Zertan ari zara hemen? Irten zaitetz: ohe hau ez dago libre. Zuk dituzunak giza akordio baten bigarren hitzak dira; horregatik, zure kausa ez da nirea bezalakoa izango. Neska hori nirekin promestu zen, eta zuri haren aitak promestu zizun, haren ondoren lehenengoa denak. Baina izatez gertuagoa dago bera berarengatik aita baino. Aitak entregatu egin zuen; alabak, bere maitaleari zin egin zion. Aitak gizon batzuk jarri ditu lekukotzat; alabak, jainkosa bat; aita gezurtti deituko dioten beldur da; alaba, aldiz, zinausle izateko beldur. Akaso zalantzarik al duzu hau edo hura den beldur handiagoa? Azken finean, bien arriskuak alderatu ahal ditzazun, begira ezazu nola akabatzen duten biek; alaba ahuldu egiten da, aita, aldiz, osasuntsu dago.

Guk geuk ere gogo ezberdinarekin jasaten dugu lehiaketa; ez dugu pareko esperantzarik, ez eta beldur berdinek ere. Zuk seguru zaudela eskatzen duzu; niretzat arbuioa heriotza baino

okerragoa da, eta zuk beharbada maitatuko duzun hori nik jada maite dut. Justiziaz eta zuzenaz arduratuko bazina, nire suaren aurrean amore emango zenuke.

Eta orain, bihotzik ez duen gizon honek bidegabeko kausa batengatik borrokatzen duenez, zuri bidaltzen dizut nire gutuna, Zidipe. Hura da zu ohean egotearen eta zu Dianarentzat susmagarria izatearen erantzule. Zer egiten duzun jakingo bazenu, zure atera gerturatzea galaraziko zenioke hari. Haren ekintzengatik arrisku latzak pairatzen dituzu, eta oxala arrisku horiek eragiten dituenak berak pairatu beharko balitu. Arbuiatuko bazenu eta jainkosak zigortzen duena maiteko ez bazenu, berehala egongo ginатеke salbu zu eta biok.

Utz ezazu beldurra alde batera, neskatxa; osasuna izango duzu luzaroan; saia zaitetz promesa ezagutzen duen tenplua bakarrik gurtzen. Zeruko jainko-jainkosak ez dira pozten idi eder bat sakrifikatzen denean, izan behar den fideltasuna dagoenean baizik, baita lekukorik ez denean ere. Emakume batzuek, osasun ona izateko, burdina eta sua jasaten dituzte; beste batzuei zuku mingots batek eskaintzen die laguntza apurra; ez duzu halako ezeren beharrik; zinaustea ekidin eta horrela salbatuko duzu zure burua, eta era berean, ni, eta eman zaizun fedea. Ezjakintasunak barkatuko dizu egin zenuen akats hura, irakurri zenituen hitzak zure gogotik atera baitziren.

Nire hitzek ohartarazi zaituzte, bai eta ni engainatzen saiatzen zaren bakoitzean menderatzen zaituzten gaixotasunek ere. Gaixotasunak ekiditea lortzen baduzu ere, erditzean bere esku argitsuen⁷⁸ laguntza erregutuko duzu. Entzungo ditu zure erreguak, eta entzundakoa gogora ekarriz, zure semea zein senarrena den galdetuko du. Promesa bat egingo duzu; baina hark badaki gezurretan egiten diozula zin. Zin egingo duzu, baina badaki jainkoak engainatu ditzakezula.

Horrek ez du nirekin zerikusirik; nire kezka askoz handiagoa da. Estuasuna sentitzen dut bularraldean, zure biziak larritzen bainau. Zergatik, zure gurasoek zure heriotzaren beldur negar egiten zutenek, ez dakite oraindik ezer zure akatsaren berri? Eta zergatik ez dakite ba

⁷⁸ Zidipek Dianari laguntza eskatuko dio. Diana, Ilargiarekin duen sinkretismoan, lastargiak daramatzala azaltzen da, eta hala agertzen da numismatikan.

horren berri oraindik? Komeni zaizu dena amari kontatzea. Egin duzunak, Zidipe, ez zaitu zertan lotsagorritu.

Kontaiozu nola ezagutu zintudan, hark buiraka daraman jainkosari sakrifizio bat eskaintzen zion artean, nola ikusi zintudanean, igarri bazenuen behintzat, begiak zure gorputzean lotuta nituela gelditu nintzen bat-batean, eta nola gelditu nintzen liluratuta (nire pasioaren zantzu argia) eta nola nire sorbaldatik soingainekoak irrist egin zuen; eta nola gero, ez dakit nondik, sagar bat agertu zen lurretik jiraka, haren forma jakitunean hitz maltzurak idatziak zituela; esaiozu zure fideltasuna lotua dagoela jainkotasuna lekuko izan zelako, sagar hori Diana jainkosaren aurrean irakurri baitzenuen. Eta idatzi horren epaia ezagutu gabe geratu ez dadin, errepika iezaizkiozu behin irakurri zenituen hitz haiek.

«Erregutzen dizut» esango du, «ezkon zaitez jainko-jainkosa onek batzen zaituztenarekin; izan dadila nire suhia hala izango zela zin egin zenuen hura. Nornahi delarik ere, gustatu egin behar zait, lehenik Dianari gustatu zaionez». Hala izango da zure ama, ama ona bada.

Baina, dena dela, galdetu dezala zein naizen eta zein mailatakoa; saiatu dadila jakiten; ikusiko du jainkosak gure alde egin duela. Zeos izeneko uharte bat, garai batean ninfa koriziarrek ikaragarri gorai patzen zutena, itsaso Egeoak inguratzen du: hura da nire herria, eta noblezia tituluak preziatzen badituzue behintzat, ez didazue egotziko aitona-amona erdeinagarriak izatea. Baditut, halaber, aberastasunak eta ohitura bikainak ere; eta, beste ezerk baino gehiago, maitasunak lotzen nau zugana: halako senar bat desiratuko zenuke, promestu gabe. Hura, halakoa ez bada ere, onartu egin beharko zenuke, hitza eman baitzenuen.

Febe ehiztariak agindu zidan, lotan nengoela, hau idazteko; Maitasunak agindu zidan esna nagoelarik hau idazteko. Baten geziek zauritu naute, saia zaitez bestearen azkonek ez zaitzaten zu zauritu. Gu bion osasuna elkartuta dago; errukitu zaitez nitaz, eta baita zeure buruaz ere. Zergatik ez duzu erabakitzen bioi laguntza bera ematea?

Hori gertatuko balitz, zeinuen soinua entzun dadinean⁷⁹ eta Delosek sakrifizioetako odolaren kolorea har dezanean,⁸⁰ zorioneko sagarraren urrezko irudi bat eskainiko da eta arrazoia bi bertso-lerrotan azalduko da:

Sagar honen imajinarekin Akonziok adierazten du

bertan idatzia zegoena berresten duela.

Ez dezala gutun luzeago batek zure gorputz gaixoa nekatu, eta ohiko amaierarekin amaitu dadila zuretzat. Agur.

⁷⁹ Ezkontzari hasiera emateko.

⁸⁰ Ezkontza egunean, Delosen (ezagutu zuen tokian) ezkontza ospatu ondoren eskertza moduan sakrifizioak ematera joango den uneari egiten dio erreferentzia.

4. BIBLIOGRAFIA

- Jaka, A. (2012). *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. Bilbo: Euskaltzaindia; Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ovidio. (1986). *Heroidas*. (F. M. Baño, Itzul.) Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas.
- Ovidio. (1986). *Heroides And Amores*. (G. Showerman, Itzul.) Londres: Loeb Classical Library.
- Ovidio. (1994). *Cartas de las Heroínas*. (A. P. Vega, Itzul.) Madrid: Gredos.
- Ovidio. (1994). *Heroidas*. (V. Cristóbal, Itzul.) Madrid: Alianza Editorial.
- Sarasola, I.; Salaburu P.; Landa, J. (2013). *Egungo Testuen Corpusa*. (EHU, Editorea) <http://www.ehu.eus/etc> helbidetik eskuratua
- Sarasola, I., Salaburu, P., Landa, J. (2013). *Egungo Testuen Corpusa*. Bilbo: EHU. <http://www.ehu.eus/etc> [Azken kontsulta: 2017/05/15]
- Schleiermacher, F. (1816). *Ueber die verschiedenen Methoden des Uebersetzens*. Berlín: Königliche Akademie der Wissenschaften.
- Sarasola, I., Salaburu, P., Landa, J., Zabaleta, J. (2014). *Ereduzko Prosa Gaur*. Bilbo: EHU <http://www.ehu.eus/egp> [Azken kontsulta: 2017/05/14]